

# KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2019ko uztaila / 296. zenbakia

[www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)  



## Itzala utziz

16 urteko ibilbide profesional eredugarria amaituko du abuztuaren 3an Markel Irizarrek. Erakutsi duen leialtasunari esker, ziklismo munduaren miresmena irabazita agurtuko da Donostiako Klasikoan.



# Udalbatza berria prest

**Izaro Elorzak aginte makila hartu du  
Demokrazia aldiko seigarren alkatea izango da**

**E**kainaren 15ean egin zen udalbatza berria eratzeko osoko bilkura berezia eta, espero bezala, Izaro Elorza izendatu zuten alkate, maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan lortutako gehiengo osoaren babesarekin.



Hamazazpi zinegotziek karguaren jabetza hartzeko legezko tramitea beteta ('*Legeak hala behartuta zin dagit edo agintzen dut*' formula erabili zuten konstituzioa errespetatuko dutela zin egiteko), alkatea aukeratzeko bozketara egin zuten. Izaro Elorzak EH Bilduko hamar zinegotzien botoak jaso zituen eta

Ainhoa Galdosek EAJkoen zazpietak.

Mikel Biainen eskutik jaso zuen zumitzezko txibita Izaro Elorzak, udaletxeko batzar aretoa betetzen zuten herritarren txalo artean. Ondoren, alkate doinuarekin batera kontzejupera jaitsi zen korporazio berria eta ohorezko aurrekuarekin egin zieten ongietorria bertan bildutako herritarrek.



Udalbatzako kide ohien eta hainbat herritarren txalo artean izendatu zuten alkate Izaro Elorza

## Demokrazio aldiko alkateak Oñatin



Eli Galdos  
1979 - 1991



Angel Iturbe  
1991 - 2003



Andoni Gartzia  
2003 - 2006



Lourdes Idoiaga  
2006 - 2011



Mikel Biain  
2011 - 2019



Izaro Elorza  
2019 -

ehbildu

## BI UDAL TALDE



### » IZARO ELORZA / EH BILDU

**“Herritarrekin batera lanean jarraitu nahi dugu. Udala guztiona izango da”**



Eskerrak emanez hasi zuen bere hitzaldia Izaro Elorzak alkate izendatu berrian. Eskerrak eman zizkien EH Bilduko hautagaitzaren aldeko aukera egin duten herritar guztiei. Beste aukera baten alde egin dutenei, berriz, jarrera eraikitzailea eta irekia dutela jakinarazi zien, eta herritarrekin batera lanean jarraitu nahi dutela. Etxekoentzat ere esker oneko hitzak izan zituen, eta baita alkatetzarako bidean lankide eta lagun izan dituen guztientzat ere.

Udala herritar guztiona izatea nahi duela esan zuen Elorzak, “herritarren eta eragileen parte hartzea sustatuko duten neurriak martxan jarrita. Herritarrekin harreman zuzena eduki gura dugu. Beraz, gure ateak zabalik egongo dira herritarren eta oposizioaren proposamenak entzun eta aztertzeko”.

Politika ekonomikoari dagokionez, gardentasunez eta ustelkeriarik gabe jarduteko konpromisoa hartu zuen. “Hanka sartu ahal dugu, baina eskua sekula ez”

Herritarren mandatua pozez, ilusioz eta arduraz hartzeko prest daudela gaineratu zuen. “Gure helburua eta lehenasuna herritar denen ongizatea bermatzea da, pertsonak erdigunean jarritz, eta horretarako proiektu aurrerakoi, feminista eta euskaltzalea dugu”. Hauteskundeetan lortutako emaitzak benetan emankorrak izateko, elkarlanean aritzeko eskaintza luzatu zien udalbatzako hautetsiei eta herritar guztiei. ■

### » AINHOA GALDOS / EAJ-PNV

**“Erantzukizunez, zintzo eta adoretzu egingo dugu oposizio lana”**



Ainhoa Galdosek publikoki zoriondu nahi izan zuen Izaro Elorza eta EH Bildu alderdia udal hauteskundeetan lortutako emaitzengatik, eta eskerrak eman,aldi berean, EAJri botoa eman dioten herritar guztiei eta aurreko agintaldian jardun duten EAJko zinegotziei.

Oposizio lana erantzukizunez, zintzo eta adoretzu beteko dutela adierazi zuen EAJko udal taldearen bozeramaleak. “Gobernuan aritzea bezain arduratsua da oposizioa egitea. Horregatik, gure eginkizunak arduraz eta erantzukizunez beteko ditugula hitzematzen dut”.

“Bereziki, gure programa osatzeko herritarrek emandako iritziak eta jaso ditugun ekarpenak defendatuko ditugu” gaineratu zuen Galdosek. “Denon oniritzia lortuz gero, zeregin garrantzitsua izango da guretzat, denon egitasmoak uztartu eta aurrera eraman ahal izatea, gainontzeko herritarren interesak ondo defendatzeko eta herriaren mesederako izango diren ekintzak eta proiektuak bultzatu ahal izateko”.

Udalbatzaren jardunari dagokionez, elkarri zor dioten errespetuz aritzea ezinbestekotzat jo zuen. “Bi alderdien arteko errespetua eta elkarlana ezinbestekoak direla uste dut. Arlo batzuetan herria ezberdin ikusten dugun arren, elkar ulertu behar dugun herrikideak garelako eta guztion ardura herritarren ongizatea bermatzea delako”. ■

**MASAJEA ETA TERAPIA ALTERNATIBOAK**

- Mina ekiditeko alternatibak
- Lumbagoa, bizkarra, lepoa eta askoz gehiago

**CHAOWEN**

Kalegoieba 1. behea      688 682 199  
Oñati                              697 943 477

**JUANJE MARGOAK**

**T. 627 818 247**

# HAMAHIRU LAN BATZORDE izango ditu udalbatza berriak

Udalaren jardunerako oinarrizkoak diren hainbat erabaki hartu zituen udalbatzak aho batez ekainaren 27ko osoko bilkuran. Hala, agintaldi berrian udalak 13 lan batzorde izango dituela adostu zuten, aurreko agintaldian baino bat gehiago. Orain arte *Hirigintza* eta *Zerbitzuak* batzorde berean zeuden, eta baita *Ingurumena* eta *Landa Garapena* arloak ere. Orain, aldiz, *Hirigintza* eta *Ingurumen* arloek batzorde propioa izango dute, eta *Zerbitzuak* eta *Landa Garapena* batzorde batean batu dituzte. Jarraian dituzue hamahiru batzordeen osaera. Lan batzordeetako botoa haztatua edo ponderatua da; hau da, alderdi bakoitzeko ordezkariaren botoak alderdi horrek udaletxean daukan ordezkartzaren balioa du: EH Bilduk 17tik 10, eta EAJk 17tik 7.

<p><b>ZERBITZUAK ETA LANDA GARAPENA</b></p>  <p>Bixente Urrutia (EH Bildu) Asier Iraeta (EH Bildu) Angel Biain (EAJ) Andoni Altuna (EAJ)</p>	<p><b>PARTAIDETZA</b></p>  <p>Anik Zubizarreta (EH Bildu) Iñaki Olalde (EH Bildu) Marijo Etxegoien (EAJ)</p>	<p><b>PERTSONALA ETA BARNE ANTOLAKETA</b></p>  <p>Izaro Elorza (EH Bildu) Xabier Igartua (EH Bildu) Ainhoa Galdos (EAJ)</p>	<p><b>KULTURA</b></p>  <p>Iñaki Olalde (EH Bildu) Alaitz Kortabarria (EH Bildu) Amaia Erostarbe (EAJ)</p>
<p><b>OGASUNA</b> Kontuen Batzordea</p>  <p>Xabier Igartua (EH Bildu) Izaro Elorza (EH Bildu) Ainhoa Galdos (EAJ) Andoni Altuna (EAJ)</p>	<p><b>KIROLAK</b> Kirodegiko obrak</p>  <p>Maite Anton (EH Bildu) Xabier Igartua (EH Bildu) Nerea Altube (EAJ)</p>	<p><b>HAURRAK ETA GAZTERIA</b></p>  <p>Iker Oñate (EH Bildu) Anik Zubizarreta (EH Bildu) Nerea Altube (EAJ)</p>	<p><b>INGURUMENA</b></p>  <p>Asier Iraeta (EH Bildu) Maite Anton (EH Bildu) Andoni Altuna (EAJ)</p>
<p><b>ONGIZATE ZERBITZUAK</b></p>  <p>Susana Altuna (EH Bildu) Anik Zubizarreta (EH Bildu) Amaia Erostarbe (EAJ)</p>	<p><b>EUSKARA eta HEZKUNTZA</b></p>  <p>Alaitz Kortabarria (EH Bildu) Iñaki Olalde (EH Bildu) Ainhoa Galdos (EAJ)</p>	<p><b>SOZIOEKONOMIA</b></p>  <p>Xabier Igartua (EH Bildu) Anik Zubizarreta (EH Bildu) J. Kepa Gerrikagoitia (EAJ)</p>	<p><b>BERDINTASUNA</b></p>  <p>Izaro Elorza (EH Bildu) Anik Zubizarreta (EH Bildu) Marijo Etxegoien (EAJ)</p>

## TOKIKO GOBERNU BATZARRA ETA OSOKO BILKURA

Tokiko Gobernu Batzarra ostegunero egingo da. Bertan lan batzordeetatik iristen diren gaien inguruko erabakiak hartzen dira. Alkatea eta EH Bilduko bost kidez osatuta egongo da: Izaro Elorza, Xabier Igartua, Anik Zubizarreta, Iñaki Olalde, Maite Anton eta Iker Oñate.

Xabier Igartua eta Anik Zubizarreta dira lehen eta bigarren alkateordeak.

Osoko bilkurak hileko azken ostegunetan egingo da. Hemen zinegotzi guztiek parte hartzen dute. Aurrekontuak, ordenantza fiskalak, kontratazioak, esleipenak, mozioak... eztabaidatu eta onartzen dira. Irekiak dira, eta galde-erreguen tartean herritarrek ere parte har dezakete.

## ORDAINSARIAK

Udal talde politikoek jasoko dituzten ordainsariak ere onartu zituen udalbatzak. Alde batetik, zati finkoa: talde politiko bakoitzak 50,78 € / hileko. Bestetik, zati aldakorra: zinegotzi batzordeburu bakoitzeko 707,25€ / hileko; batzordeburu ez den zinegotzi bakoitzeko 374,96 € /hileko, eta liberatutako zinegotzi bakoitzeko 160,82€/hileko.

**Catalana Occidente** **Mikel Egaña Urrutia**  
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- Heriotza
- Autoak
- Bizitza
- Istripuak
- Ontziak
- Osasuna
- Etxebizitza
- Aurrezkitza
- Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea  
638 16 79 84  
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

**Almaraz**  
Inmobiliari gestioa

**Carmelo Pérez de Almaraz**

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

Tel.: 679411444  
www.almaraz.info

Gure beharra baduzu,  
ondo-ondoan gaituzu.  
**Arrasaten.**

Hain ondo zaindu nahi  
zaitugunez, **Arrasaten bertan**  
ere artatuko zaitu Zuatzu  
klinikako espezialista-taldeak,  
20 urtetik gorako esperientzia  
duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.  
Jaio aurreko diagnostikoa.  
Bularretako patologia.  
Laguntza bidezko ugalketa.

Nafarroa Etorbidea, 4 (bajo)  
20500 Mondragón  
943 792 018



[www.clinicazuatzu.com](http://www.clinicazuatzu.com)

# Bakarra eta errepikaezina

Abuztuaren 3an, Donostiako Klasikoan, amaiera emango dio Markel Irizarrek 16 urteko ibilbideari txirrindularitza profesionalean. Bi garaipen lortu ditu, baina tropeleko kide eta txirrinduzale askoren bihotzak irabazi ditu bere jokabide zintzo eta izakera lehiolari esker. Agenda hitzorduz betea izan arren, patxadaz erantzun dio Kontzejupetik aldizkariak egindako galdera sortari. Eskerrik asko, Markel!

## HASTAPENAK

### Txirrindularitzan hasi aurretik atletismoan aritu zinen, ezta?

Bai, 15 urtera arte atletismoan ibili nintzen. Nahiko politto; 3. saikatu nintzen Gipuzkoako txapelketan.

### Nola etorri zen bizikletarako jauzia?

Atzeko Kaleko karreretan. Pare bat aldiz irabazi nuen, inoren bizikletarekin, eta gurasoekin hitz egin ondoren txirrindularitzan hastea erabaki genuen, 15 urte nituela.

### Zeintzuk izan ziren lehenengo maisuak?

Anton Erostarbe izan zen nire lehenengo zuzendaria, baina hastapenetan gehien lagundu eta erakutsi zidana Jose Luis Fernandez izan zen. Lau urtez egon nintzen berarekin, Olarra taldera joan arte. Oso zorrotza zen eta berari zor diot, neurri handian, diziplinatua izatea.

### Noiz hasi zinen nabarmentzen?

Jubeniletako bigarren urtean Gipuzkoako Itzulia irabazi nuen, etapa bat, eta Gipuzkoako txapelketa ere bai. Espainiako selekzioan egon nintzen, Valverde eta Plazarekin, besteak beste. Espainiako txapelketan, hiru lagun ihes eginda gindoazela, helmugarako 800 metro falta zirela katea apurto zitzaidan *pavé* edo galtzada-harri tarte batean.

### Hurrengo urtean, ikasketak utzi eta txirrindularitzan buru-belarri zentratzea erabaki zenuen.

Bai. Ikasten ondo moldatzen nin-

tzen. Enpresagintza edo IVEF ikasi nahi nuen, baina oso zaila zen karrera osoa egitea. Beraz, bi urteko modulu bat (Muntaia eta mantenua) egin eta bizikletan zentratu nintzen.

### Apustua ondo atera izan ez balitz?

Agian Ulma-n ibiliko nintzen, praktikak bertan egin nituen-eta. Baina ez naiz atzera begiratu zalea. Etorkizunean asko pentsatzen dut; asko gustatzen zait programatzea eta dena lotuta edukitzea. Hala izan da eta listo. Historia hori idatzita dago eta ezin da aldatu.

### Zorionez, afizionatu mailan ere erakutsi zenuen bazinela nor.

Bi urte egin nituen Ulma-Cegasa taldean eta beste bi Olarran. Lehenengo urtea gogorra izan zen; bigarrenean *Gervais* irabazi nuen, hirugarrenean pare bat karrera, eta laugarren urtean Bidasoako Itzulia eta Gipuzkoa nahiz Euskadiko txapelketak erlojupean, besteak beste. Miguel Madariagak esan zidan profesionaletara pasako nintzela, baina, gero, barrabletako minbiziarena etorri zen, eta beste urtebete egin behar izan nuen Orbean, kimio saioak amaitu ostean. Zorionez, Madariagak nire aldeko apustuari eutsi zion, eta 2003an sinatu nuen Euskaltelekin.

### Zenbat aldiz entzun behar izan duzu “minbiziari esker” pasa zinela profesionaletara?

Bai, baina horrekin bizitzen ere

ikasi nuen. Oñatin badut lagun bat sarri esaten duena ‘*Markel, mucha prensa y pocos resultados*’. Bi garaipen bakarrik lortuta nola egon daitekeen hamasei urte profesionaletan, esan izan dit batek baino gehiagok. Baina uste dut nahiko umil jokatu izan dudala beti, eta badakidala zer naizen, nondik natorren eta nora noan.

## 16 URTE PROFESIONALETAN

### Gerora hamasei denboraldi egin dituzu profesionaletan. Zein da balantzea?

Nire ametsa zen, profesionaletara iritsiz gero, kirol ibilbide luzea egitea. Eta zerbait nabarmentzekotan, iparraldeko klasikoetan bizi izandako esperientziak aipatuko nituzke. Uste dut euskal txirrindulari bakarra naizela bi *Flandes* eta *Rubaix* bat irabazi dituen txirrindulari baten (Fabian Cancellara) taldean egoteko aukera izan duena. Karrera horiek eta une horiek barrutik bizi ahal izatea izugarria izan da. Barru-barruan daramat.

### Nahi zenuen tokira iritsi zara?

Nahiko nuen, jakina, garaipen gehiago lortzea, baina uste dut zorionekoa naizela, neuk erabaki ahal izan dudalako noiz, non eta nola utzi. Zorte handia da hori. Bizitzak ziklista izateko aukera eman dit eta oso eskertuta nago.

### Arantzarik geratu zaizu?

Hiru kronotan egin dut bigarren, horietako bitan segundu berean. Beraz, palmaresa potolotxoagoa

«Abuztuaren 3koa ez dut nahi Markel handi egiteko eguna izatea, Markelek eskerrak emateko baizik, urte guzti hauetan ondoan izan ditudanei eskerrak eman eta disfrutatu dezatela»

«Donostiako Klasikoa amaitu ostean Oñatira etorriko gara Trek-eko taldekide guztiak agurra ospatzera»



> Etxeko zaleen aurrean, Donostian, agurtuko da Markel Irizar oñatiarra txirrindularitza profesionaletik.

📷 Félix Sánchez

izan zitekeen, baina horrela izan da.

#### **Unerik gozoenak?**

2013ko Flandriako Itzulia, duda barik. Babeslearen jarraipena eta taldea bera (75 familia) jokoan zegoen. Presio handiarekin irten ginen, eta garaipena lortu genuen Fabianekin (Cancellara). Izugarria izan zen. Beste garaipen batzuk lortu izan ditugu, baina orduko bizipenik ez.

#### **Zeure garaipenen gaintetik?**

Bai. Nire garaipenekin gozatu nuen, baina, bizitza arruntean ere halakoa naiz, gehiago disfrutatzen dut laguntzen. Ez naiz ego handiko pertsona, eta horrek lagundu dit morroi lana hobeto egiten, enpatia eta konpromiso gehiagorekin.

#### **Zergatik ez duzu garaipen gehiago lortu ahal izan?**

Fisikoki beste batzuk hobek izan direlako eta, gainera, oso urduria naizelako karreran, bizitzako beste arlo batzuetan ez bezala; ez naiz gai izan estresa eta tentsioa kudeatzeko une erabakiorretan.

#### **Lider askorentzat egin duzu lan. Norekin geratzen zara?**

Ezingo nuke bat aukeratu. Pertsonalki Andy Schleckek markatu nau gehien; kirol ikuspegitik Cancellarak; bizitza gehien aldatu didana Lance Armstrong; eta konfiantza mailan Contadorrek. Alberto

*«Une bereziena, duda barik, 2013an Flandriako Tourrean lortutako garaipena, Cancellarekin. Taldearen etorkizuna jokoan zegoen. Izugarria izan zen»*

—

*«Flandes eta Roubaix irabazi dituen talde batean egoteko aukera izan duen euskal ziklista bakarra naiz»*

ikaragarria izan da; *killer* bat, eta oso esker onekoa. Etapa ostean pijaman etortzen zen zure gelara eskerrak ematera egindako lanagatik.

#### **AGURRA ETA ETORKIZUNA**

#### **Abuztuaren 3a, agurrekoa, nola joatea nahiko zenuke?**

Aurrena, karrera ahalik eta txukunen egitea. Gero, Trekeko taldekide guztiak etorriko gara Oñatira. Bizikleta Bizipozen eskegi eta, badakit zerbait antolatzen ari direla, baina ez dakit zer.

Ez dut nahi Markel handi egiteko eguna izatea; Markelek eskerrak ematekoa baikiz. Nire ibilbidean ondoan izan ditudanei (Aloña Mendi, Ulma, J.L. Fernandez, Madariaga, Artetxe, Kepa Zelaia...) eta zale askori eskerrak eman eta beraiek ere disfrutatzeko eguna izatea nahi nuke.

#### **Trek-en lanean jarraituko duzu?**

Bai, *scouting* lanak egingo ditut; txirrindulari gazteen informeak, elkarrizketak... Beste lan batzuk ere egingo ditut, baina oraindik zehaztu barik daude.

#### **Oñatin ere badaude oso maila txukunean ari diren txirrindulariak: Murgiondo, Erostarbe, Casais...**

Bai. Xabi osasun arazoekin dabil aurten, baina uste dut baduela kalitatea profesionala izateko; burua ere ona du, diziplina... Poztuko nintzateke azken bultzadaxoa eman ahal izango banio.

Datorren urtetik aurrera saiatuko naiz Aloña Mendin ere nire aletxo ipintzen; bileratxo batzuk egiten negu partean, urte hauetan ikasi dudana beraiei transmititzeko.

#### **Semeak ere hasi dira bizikletan. Gustatuko litzaizuke txirrindulari izatea?**

Zoriontsu izatea nahi dut, beste ezeren gaintetik, eta txirrindularitzan bada, doble poztuko nintzateke. Gainera, Aloña Mendin hastea erabaki dute, eta asko poztu naiz.

## KIROL IBILBIDEKO IRUDI ETA DATUAK



**ATLETISMOA** "Oroitzapen bikainak datozkit burura. Urte oso politak izan ziren. Beti gustatu izan zait korrika egitea eta aurrerantzean ere, bueltatuko naiz kirol hau praktikatuzera".



**HASTAPENAK** "Kadete mailan hasi nintzen Aloñako ziklismo sailean. Bertan lanean ibili zirenekin eta babesle izan direnekin, zorretan nago. Lortu dudan guztia eurei esker izan da".



**MINBIZIA** "Aurrez etxean egoera oso gogorra pasa ostean, zailduta iritsi nintzen bizitzak jarri zidan oztopo honetara. Ikasgai handia izan zen guztia eta ez nuke ezer aldatuko".



**PROFESIONAL MAILARA** "Kontratua sinatu bezperan ezin izan nuen lorik egin. Miguelek bere hitza bete zuen eta oso eskertuta nago. Betiko ametsa errealitate bilakatu zen eguna".

## FITXA

- **IZEN ABIZENAK**  
Markel Irizar Aranburu
- **JAIOTEGUNA**  
1980-02-5 (39 urte)
- **EZAUGARRI FISIKOAK**  
1,82 m. • 80 kg.
- **IBILBIDEA**  
Euskaltel (2004-2009)  
RadioShack (2010-2013)  
TREK (2014-2019)
- **GARAIPENAK**  
Poitou-Charentes (2010)  
Andaluziako Itzulia (2011)

2019

LA VUELTA

10  
VUELTAle Tour  
France6  
TOUR

Giro d'Italia

5  
GIRO

DE RONDE

29  
MONUMENTU

2004



**TALDE ALDAKETA** "Zeruko atea zabandu zitzaizkidan. Nire kirol ibilbidean hartu dudana erabaki onena izan da. Umetatik amesten nuen talde-izaera aurkitu dut bertan. Familia bat".



**GARAIPEN HANDIENA** "Aste arraroa izan zen. Taldekide guztiak nire alde lanean ikustea oso arrotza egin zitzaidan. Ez nago horretara ohituta eta beraiei esker lortu nuen garaipena".



**IZARREN ALBOAN** "Lider oso garrantzitsuak izan ditut. Andy, Fabian, Alberto...bakoitza berean, baina top ziklistak izan dira. Eurentzako lana egitean, oso baloratua sentitu naiz beti".



**AZKEN EGUNAK** "Bizikleta gainean negar egin dudana azken aldia; Giroan. Sei hilabete-tan pertsona askok bere bizitza guztian baino gehiago inspiratu dudala esan zidan Cicconek".

## ETXEKO ETA INGURUKOEN HITZETAN



**M<sup>o</sup> Eugenia Aranburu**  
*Markelen ama*

“Izan dudan seme bakarra izanik, nire bizitzako pertsona garrantzitsuena da Markel. Beti izan dugu harreman oso estua baina gizonaren heriotzak eta gerora etorri zen minbiziak, gehiago lotu gintuen. Oso harro nago egin duenarekin; onena opa diot beti”.



**Txus Aranburu**  
*Markelen lagunartea*

“Lagunartea profesional mailara iritsi zenean sortu genuen baina jarraipena kadete mailatik egiten diogu. Familiako eta Markelen gertukoek osatzen dugu taldea eta guztiak gara ziklismo zaleak. Errepide bazterrean asko gozatu dugu urte hauetan”.



**Jose Luis Fernandez**  
*Prestatzaile ohia*

“Iraganean Markelekin izandako harremanean, garbi ikusten zen txikitatik txirrindulari izan nahi zuela. Eta bizitzak hainbat oztopo jarri arren, diziplina, borondate eta talentuarekin, guztiak gainditu zituen. Eta begira noraino iritsi den. *Chapeau!*”.



**Iván Velasco**  
*Talde-kide ohia*

“Markel bizipoza da. Pertsona oso umoretsua eta errepidean edo bizitzan, beti laguntzeko prest dagoena. Ziklista bezala oso profesionala izan da eta izan dituen lider guztiek alboan eduki nahi izan dute beti. Horrek garbi erakusten du ze maila duen”.

ESKERRIK ASKO  
**Markel**  
#EskerrikAskoBizipoz



“Txirrindulari bikaina izan zara. Ibilbide eder bat itxiko den arren, bizitzako etapak aurrera darrai. Maite zaitugu aita!”.

Alaitz, Xabat, Aimar eta Unai



**Miguel Madariaga**  
*Zuzendari ohia*

“Afizionatu mailan ezagutu nuen. Gaitasun handiak zituen iada. Baina denok dakigun bezala, urte zailak gainditu behar izan zituen. Hala ere, agindu bezala, profesionaletara pasatu genuen. Gerora egin duen bidea, bikaina. Pertsona berezia, handia. Lider bat.”



**Josu Larrazabal**  
*Egungo prestatzailea*

“Nire hazkuntza profesionalean txirrindulari eragingarriarenarikoa izan da. Langile nekazina, askotan gutxiago entrenatzeko esan behar zaien horietakoa, beti baikor, beti besteen zai, gregario bizikletan, lider bizitzan, eskerrik asko Markel!”



**Angel Edo**  
*Managerra*

“Tipo itzela da, asko irakatsi dit. Bizitza gogorra izan du baina bere nortasunari esker, arazo guztiak era positibo batean transformatu ditu. Bere ingurukoak asko zaintzen ditu eta ziklista bezala, ezinbesteko pieza da edozein talderentzat”.



**Alberto Contador**  
*Talde-kide ohia*

“Markel pertsona oso garrantzitsua izan zen nire azken urtean. Beti izan dugu erlazio ona eta talde-kide bezala, oso leiala izan zen nirekin. Konfidantza handia transmititzen zidan errepidean eta talde barruan, sekulako energia positiboa ematen zigun”.



» **BEÑAT  
AGIRREURRETA**  
POZ zerbitzuko orientatzailea

**"Herritarren  
erantzuna  
oso positiboa  
izaten ari da"**

Anbulatorioan  
eskaintzen  
da POZ  
zerbitzua,  
asteartetan  
(15:00-  
17:00) eta  
ostegunetan  
(9:00-11:00)

# POZ

## oñatiarren artean bizi-ohitura aktibo eta osasuntsuagoak sustatzea helburu duen zerbitzua dago martxan ambulatorioan

Apirilaren 15ean **POZ - Ohitura Osasuntsuen Orientazio Zerbitzua** jarri zuten martxan ambulatorioan, Oñatiko udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Herritarren artean bizi-ohitura osasuntsuagoak sustatzea da helburua; sedentarietatik bizitza aktibora pasatzea. Ia hiru hilabeteko ibilbidea egin du zerbitzua eta orain arteko balantzea oso positiboa da, Beñat Agirreurreta zerbitzuko orientatzaileak adierazi digunez.

**la hiru hilabeteko bidea egin du POZ zerbitzua. Zein da orain arteko balantzea?**

Oso positiboa. Orain arte etorri diren pertsona guztiek prestutasun handia erakutsi dute eta bizitza aktiboagoa egiteko gogoz daude. Beraz, balorazioa ona da.

**Nola funtzionatzen du. Edonor joan daiteke?**

Ez. Medikuek edo erizainek bideratutako pertsonekin hasi gara lanean; kontsultan test txiki bat egiten dute eta ikusten badute pertsona bat ez-aktiboa dela, zerbitzu honetara etortzeko gomendioa luzatzen diote.

Etortzea erabakitzen duten pertsonekin hiru bilera egiten ditut. Lehenengoa elkar ezagutzeko izaten da; POZ

**Etxe-Aundi**  
Hotela - Jantokia

Tel. 943 78 19 56  
www.etxeaundi.com

zerbitzuaren helburua eta dinamika azaltzen diot eta, aldi berean, pertsona bera ezagutzen dut: bere egoera, adina, gogoia, motibazioa, helburuak...

Informazio horrekin eta mediku-erizainen txostena kontuan hartuz, pertsona bakoitzaren ezaugarrietara eta beharretara egokitutako ariketa plan bat prestatzen dut, eta bigarren hitzorduan azaltzen diet pazienteei. Inportantea da beraiek ados egotea, gogoz har dezaten eta ez obligazio moduan. Eta lanean hasteko, erronka edo

helburu txiki batzuk ipintzen ditugu hurrengo asteetarako.

Handik hilabetera egiten dugu hirugarren bilera. Ebaluazio moduko bat izaten da; berarentzat prestatutako plangintza ondo joan den ikusteko, eta, beharrezkoa bada, egokitzapenak egiteko eta estimulu berriak jartzeko.

Hortik aurrera, ikusten bada pazienteak barneratu dituela bizitza aktiboagoa eramateko pautak, telefono bidez egiten dugu jarraipena.

**Zer nolako ariketa-planak prestatzen dizkiezu?**

Batzuetan nahikoa izaten da eguneroko bizi-ohiturak pittin bat aldatzea; adibidez, etxetik irteten garenean eskailerak erabiltzea, edo ogia erostera goazenean plazari bueltatxo bat emateko aprobetxatzea. Beste batzuetan ariketa espezifikoa egitea komeni izaten da, gorputz atal ezberdinak (sabelaldea, sorbalda, besoak, sabela, hankak...) indartzeko, oreka lantzeko, bizkarreko posturak zuzentzeko... Halakoetan, kontsultan erakusten diet nola egin behar diren ariketak eta gero bakoitzak egiten ditu etxean,

parkean, kiroldegian...

**Lehenengo emaitzak ikusten ere hasi zarete, ezta?**

Bai. Orain arte 35 pertsona pasa dira zerbitzutik, eta horietako 10 edo 12 martxan daudela esango nuke; hau da, dagoeneko barneratu dituzte pautak edo bizi-ohitura batzuk aktiboago egoteko.

Hiru hilabete eskaseta zaila da aldaketa handiak egitea, baina hona etorri den jendea gustura dago. Batzuk esan didate hobeto sentitzen direla, eta hori oso inportantea da. ■

## POZ zerbitzuaren erabiltzaileak



**LURDES PINILLOS**  
76 URTE

Medikuak gomendatuta etorri naiz POZ zerbitzura. Artrosia daukat mokorrean eta ariketa taula bat eman dit Beñatek etxean egiteko. Sabelaldea indartzeko ariketak dira. Oraindik oso goiz da emaitzak ikusteko, baina pittin bat hobeto sentitzen naiz eta gustura nabil. Paseoak ere egiten ditut egunero, eta Beñatek aholkatu dit astean behin ibilaldi luzetxoagoa egiteko, gorputzarentzako estimulu gisa.



**MAISE JUNCO**  
70 URTE

Familia medikuak eman zidan zerbitzu honen berri. Bizkarreko mina izaten dut eta, hainbeste medikamentu hartu barik, ariketak eginda mina arintzea da helburua. Bizkarra,abelaldea eta hankak indartzeko ariketa batzuk egiteko esan dit Beñatek eta oso gustura ari naiz. Oso ondo ikusten dut zerbitzu hau; bestela, erreabilitazio zerbitzurako asko arindu daitekeela uste dut.



**JUAN KONRADO KERNSTOCK**  
78 URTE

Disko-hernia atera nuen bere lekutik orain dela 30 urte, lantegian, makina bat mugitzen ari nintzela. Gorriak pasa nituen. Zorionez, naturista batek bizkarrezurra zuzendu zidan, eta hainbestean nabil. Egunero, 8-10 km-ko ibilaldiak egiten ditut, eta on egiten dit. Orain medikuak esanda etorri naiz POZ zerbitzura, eta ondo dago. Ariketa batzuk egitea gomendatu dit, eta tarteka, bizikleta estatikoan ibiltzea.



**FERNANDO IRIZAR**  
74 URTE

Pisu handiegia daukat eta pittin bat arintzeko asmoz etorri naiz. Belauneko minekin ibiltzen naiz eta injekzioak ere hartu izan ditut, baina pisua kentzea omen da soluziorik onena, eta horretarako badakizu zer egin behar den: edo gutxiago jan (hori zaila da), edo ariketa gehiago egin. Ea gaurkoan etxeko lanak ipintzen dizkidan, eta hasten naizen. Ondo ikusten dut era honetako zerbitzua; kasu egin behar zaiola!

*Urte askotan zuekin*

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • [www.mapfre.es](http://www.mapfre.es)

Jaione San Miguel Ugarte



**MAPFRE**  
OÑATI



# Mendiko artzantzaren aldeko apustua

## Mendiko txabola egokitu eta Idiazabal deiturako 'Mendiko Gazta' merkaturatzen hasiko da Nestor Altzelai 'Aldai'

Arriurdineko  
magalean, 1.200 m.-ra  
dauden larreetan  
bazkatzen dute  
Aldairen ardiek

Bi artzantza mota daudela dio Nestor Altzelai 'Aldai': behekoa, etxaldekoa, eta mendikoa. Eta berak mendikoaren aldeko apustua egitea erabaki du. Udalaren eta Foru Aldundiaren laguntzarekin mendiko txabola egokitu du, gaztandegi eta jezte-gela berriak ipini ditu, eta abuztutik aurrera **Mendiko Gazta** etiketadun (Idiazabal deiturakoa) gazta saltzen hasiko da. Udaberriko mendiko larre aberatsekin elikatzen diren ardien esnearekin egindako gazta da. Desberdina. Berezia. Aldaiko txabolan izan gara Nestorrekin.

### Zer da Mendiko Gazta?

Mendiko larreetako belarra bakarrik jaten duten ardien esnearekin egindako gazta. Goian udaberriaren ateratzen den belarra oso aberatsa izaten da, eta horrek ematen dio ezberdintasun puntu hori mendiko gaztari. Gustu berezia. Zapore biziagoa. Dena naturala da. Ez pentsurik ez beste ezer. Mendiko larrea

soilik.

Mendiko gazta ez da berria. Lehendik ere egiten nuen nik, baina 2010ean 'Mendiko Gazta' marka sortu zen, Idiazabal jatorri izendapenaren barruan, Foru Aldundiaren ekimenez, mendiko artzantza balioan jartzeko helburuarekin. Baina, jakina, etiketa horrekin saldu ahal izateko, baldintza batzuk bete behar dira

 **Mekalki**  
S. Coop. mekanizatuak  
Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | [www.mekalki.es](http://www.mekalki.es)





Oñatiko udalaren eta Foru Aldundiaren laguntzari esker jezte-gela eta gaztandegia egokitu ditu Nestorrek Aldai mendiko bordan



## Udaberriko mendiko larre aberatsak soilik jaten dituzten ardien esnearekin egindakoa da 'Mendiko Gazta', eta Idiazabal sor-markaren barruan dago

kalitate eta sanidade mailan.

### Horregatik egokitu duzu mendiko txabola?

Bai. Oñatiko udalaren eta diputazioaren laguntzarekin gaztandegia eta jezte-gela berriak egokitu ditut, txabola pittin bat handituta. Teilatua eta eskortak ere berritu ditugu, eta, gainera, ardiak jezteko makineria jarri dut nire kontura.

### Noiz egiten da Mendiko Gazta?

Maiatzeko lehenetan igotzen gara gora eta uztaila akabera arte jardungo dugu gaztagintzan,

ardiak antzutu bitartean. Goizean eta arratsaldean jezten ditugu ardiak, eta bi jertzaldi horietako esnearekin egunero egiten ditugu 25-30 bat gazta.

Gure asmoa da goiko gaztagintza sasoia luzatzea abuztua amaiera arte, eta horretarako erditzeak atzeratu behar ditugu. Lehen azaroan hasten ziren bildotsak jaiotzen, eta, jakina, mendira igo orduko esne gutxi zuten ardiek. Ardi latxak 5-6 hila-betetan ematen du esnea.

Beraz, orain beranduago ahariketan ditugu, erditzeak urtarrila amaiera arte atzeratu eta, hala,

mendiko gazta egiteko sasoia ahalik eta gehien luzatzeko.

### Behean, Olabartan, ez duzu gaztarik egiten?

Bai, behean egiten ditugu otsailetik maiatzera artekoak, ardiak mendira igo artekoak. Baina nire asmoa da, esan bezala, mendiko gaztaren aldeko apustua egitea gero eta gehiago.

### Zergatik?

Bi artzantza mota daude: behekoa, etxe ingurukoa, eta mendikoa. Nik biak probatu ditut, eta esperientziak erakutsi dit ➔

Lau metro luzatu behar izan du txabola jezte-gela berria egiteko

 **ZURICH**

M<sup>o</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

**HARALD LINDER**

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK  
PERSIANAK, LERMOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

errentagarriagoa dela mendikoa. Beste batek kontrakoa esango dizu, igual, baina nik nirea ikusten dut.

Behean preparatutako jana eman behar izaten zaie ardiei, eta horrek asko igotzen ditu kostuak. Hemen, goian, ardiek belarra jaten dute, eta kostuak erdira jaisten dira. Behean esne litro gehiago lortuko duzu, baina zertarako? Prezioak botatzen ibiltzeko? Nahiago dut gazta gutxiago egin mendian, baina bera hobeto saldu. Hori da nire artzantza. Horregatik heldu diogu mendiko artzantzari eta mendiko gaztari.

### Kontsumitzaileak antzematen al dio mendiko gaztari?

Batzuk bai, beste batzuk agian ez. Geuk segidan antzematen diogu. Larreak bereziak dira 1.200 metroko garaieran, eta horrek beste zapora bat ematen dio. Ez dut esaten hobea edo txarragoa den; batzuek esango dute behekoa hobea dela. Ez naiz horretan sartuko, baina mendikoa da beste gazta bat, desberdina behekoaren aldean. Berezia. Elaborazioa berdina da, baina aldatzen dena esnea da, ardiek goiko larreak bakarrik jaten dituztelako. Beste ezer ez.

### Eta jendeak eskatzen du.

Bai, orain arte behintzat eskaera



Mendian aurtan 1.500 kilo gazta egitea espero du Aldaik



**Arantzazun,  
Urbiako fondan  
eta etxean  
saltzen ditu  
gatzak Aldaik**

handia dago eta harrera oso ona izan du merkatuan. Artzain gutxi gara oraindik, 14-15 bat, Mendiko Gazta ekoizten dugunok, eta produkzioa ez da oso handia. Guk aurtan 1.500 kilo inguru egitea espero dugu.

### NESTOR ALTZELAI 'ALDAI'

*«Bi artzantza motak probatu ditut, behekoa eta mendikoa; eta esperientziak erakutsi dit mendikoa errentagarriagoa dela, niretako behintzat».*

### Non saltzen duzu?

Arantzazun, Urbiako fondan, eta etxean ere bai. Dendaren batek saldu nahi badu eta nik ipinitako prezioa (25€/kiloa) ordaintzen badu, emango diot, baina hortik behera ez. Hemen lan asko dago, eta ez baduzu kobratzen... Hemengo jainkoa dirua da.

Oraingoz, Irazola okindegiak egin dit enkargua.

### Noiz arte egoten zara mendiko txabolan?

laz Gabon egunean jaitsi ginen. Eguraldiaren arabera. Urrian ere elurte handia bota zuen, 45 zentimetroko geruza, eta halakoetan ardiak beheratxoago eramaten ditut, eta eguraldia hobetzen denean berriz gora.

Aurtan ere ahal den beranduen arte egongo gara hemen. Behera ere sarri joan behar izaten dut, baina lo egitera beti gora. ■



**Gualbi**  
asesores

*Bezeroen beharrei erantzuteko prest!*

**Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea**  
**Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza**  
**Merkataritza • Abokatuak**

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

[www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)

# Abuztuan hasiko dira kiroldegia berritzeko lanak

Igerilekuko berdegunean hasiko dira lur-kentze lanak. Gainerakoan ez diote eragingo kiroldegiko ohiko funtzionamenduari.



Ekainaren 27ko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak Zubikoa kiroldegia berritzeko lehen faseko lanak esleitzea, eta erabaki horren aurkako helegiterik ez badago (15 eguneko epea irekiko da uztailan) obrak abuztuaren 1ean hasia da udal arduradunen asmoa.

Igerilekuko berdegunean hasiko dira lanak, igerilekua handitu ahal izateko lur-kentze lanak egin behar baitira bertan. Ondorioz, igerilekuko berdegunea itxita egongo litzateke abuztuaren 1etik aurrera. Baina, gainerakoan, kiroldegiko ohiko funtzionamenduan ez da espero aldaketarik egotea urtea amaitu arte.

Kiroldegia handitu eta berritzeko lehen fase honetako lanak bost lotetan esleitu zaizkie honako enpresa hauei: **1. lotea:** Miguel Imaz S.A. (3.912.350 € +BEZ); **2. lotea** Hidrocontrol acondicionamiento de aguas S.L. (336.600 € +BEZ); **3. lotea** Ondoan S. Coop (1.267.278 € + BEZ); **4. lotea:** Ondoan S. Coop (515.158 € + BEZ); **5. lotea:** Omesa S.L.U. (18.675 € + BEZ). Lanak burutzeko 8 eta 17 hilabete arteko exekuzio epeak agindu dituzte.

## Kiroldegiko mantenu teknikari lanpostua betetzeko deialdia

**LAN ESKAINTZA** Kiroldegiko mantenu teknikari lanpostua oposizio-lehiaketa publiko bidez betetzeko deialdia egin du udalak. Lehen mailako Lanbide Heziketa titulua eskatzen da, hauetako arloren batean: elektrizitatea eta elektronika, energia eta ura, eraikuntza eta obra zibila, fabrikazio mekanikoa edota instalatze eta mantentze lanak. B gidabaimena eta, euskarari dagokionez, bigarren hizkuntz eskakizun maila izatea ere eskatzen da. Uztailaren 8ra arteko epea dago izena emateko udaletxeko HAZ bulegoan. [www.onati.eus](http://www.onati.eus) webgunean kontsulta daiteke baldintza eta oinarrien zerrenda osoa. Lan poltsa eratuko da etorkizuneko balizko beharrei erantzuteko.

## Abeltzantzako formazioa eskainiko du udalak langabetuentzat

**FORMAZIOA** 'Abeltzantzako Jarduera Osagarriak' arloan ziurtagiri profesionala eskuratu ahal izateko formazio ikastaroa eskainiko du Oñatiko udalak, HAZI erakundea eta Gomiztegiarekin elkarlanean. Abeltzaintza arloan lan egiteko interesa izan dezaketen eta langabezia egoeran dauden pertsonen zuzenduta dago. Zubillagako Olaburu zentroan emango da ikastaroa urritik aurrera, asteleheneetik ostiralera (8:30-14:30). Guztira 510 formazio ordu, teoria eta praktika uztartuz. Informazioa eta izen-ematea: HAZI fundazioa - 678 630 247 / [oaretxabaleta@hazi.eus](mailto:oaretxabaleta@hazi.eus).

## Gazte kualifikatuak lan munduratzeko HAZILAN programa abian

**FORMAZIOA** Goi mailako ikasketak bukatuta eta bere alorrean lana lortzeko zailtasunak dituzten 20-44 urte arteko gazteen lan munduratzeko da Debagoieneko Mankomunitateak abian jarriko duen HAZILAN programaren helburua. Bertan parte hartzen duten pertsonen kompetentzia profesional eta pertsonaletan trebatzeko formazioa emango zaie (80 ordu, irailean) eta ondoren praktikak egingo dituzte enpresa batean, proiektu bat garatuz (2-9 hilabete, urritik aurrera). Unibertsitate titulua edo goi mailako Lanbide Heziketa ziklo baten jabe izatea eskatzen da. Uztailaren 30era arteko epea dago izena emateko [www.debagoiena.eus](http://www.debagoiena.eus) webgunean. Informazio gehiago: [airizar@debagoiena.eus](mailto:airizar@debagoiena.eus) / 943793090

## H.A.Z. bulegoaren abuztuko ordutegia

Udaletxeko Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ) zabalik egongo da abuztuan, baina ordutegi murriztagoarekin, 09:00 - 14:00. Ordura arte, uztailan ohiko ordutegia izango du (07:30 - 15:30).

## Herribusa Usakora ere joaten da

Usakon bainu denboraldia hasi zenetik Herribusak bi joan-etorri egiten ditu bertara egunero. Lehenengoa 16:00-etan, Ugarkaldetik abiatuta; anbulategian (16:08), Korreosen (16:10) eta Kasablankan (16:15) ditu geldialdiak. Usakora 16:20an iristen da. Bigarren zerbitzua 19:30etan abiatzen da Ugarkaldetik eta 19:45etan irteten da Usakotik

## Jai egitarauaren irudia hautatzeko lehiaketa

San Migel jaietako programaren azaleko irudia hautatzeko lehiaketa deitu du udalak. 18 urtetik gorako edonork parte hartu ahal izango du. Teknika libre izango da, baina derrigorrez agertu beharko da 'Oñatiko Jaixak 2019' testua. Lanak aurkezteko azken eguna uztailaren 15a da. Irabazleak 500 euroko saria jasoko du.

## Herri Eguneko artisau azokan parte hartzeko deialdia

Urriaren 5ean ospatuko den Herri Eguneko artisau azokan parte hartzeko izen-ematea zabaldu du udalak. Interesatuek uztailaren 12a baino lehen aurkeztu behar dute eskaera, eskatzailearen artisau lanari buruzko txostenarekin. Denera 30 postu egongo dira, eta horietako 20 betetzeko lehentasuna izango dute Oñatiko artisauak.

# "Gure etorkizun politikoa erreferendum bidez erabakitzea posible egitera goaz"

**IOSU ETXABURU ETA AMALUR ALVAREZ** / Gure Esku ekimeneko bozeramaleak

Azken sei urteetan erabakitze eskubidearen kontzeptua lantzen jardun ondoren, erreferendumari burutz hitz egiten hasteko garaia da Gure Eskuko bozeramaleen ustez. "Aldarrikatzetik egikaritzera pasatzeko ordua da. Argi baldin badaukagu gure estatus politikoa erabaki nahi dugula eta erabakien jabe izan nahi dugula, tresna eta berme juridiko-politikoak behar ditugu, herriak erabakitzen duen hori gauzagarria izan dadin"

"Sinetsita gaude" gaineratu zuten, "kultura demokratiko sakona duten beste gizarte batzuetan posible izan den bezala, hemen ere zilegitasun demokratiko osoa dugula herriari ahotsa emateko eta erreferenduma egiteko. Beraz, erreferenduma tresna demokratiko gisa legezatzearen aldeko apustu sendoa egin nahi dugu. Gure asmoa da ahalbidetzea eta eszenario bat sortzen laguntzea, erabakitze eskubidea gauza dadin".

## HERRI EKIMENA

Helburu horrekin jarri du martxan Gure Eskuk 'Erreferendumaren aldeko Herri Ekimena'. "Izenak berak dioen bezala, ekimen kolektiboa izatea nahi dugu; herri osoarena, ez bakarrik Gure Eskurena" azaldu zuen Juaristik. "Herriar guztiei luzatuko diegu gonbitea. Arlo guztietako eragileekin konplizitatea eta konpro-



Aldarrikapenetik erabakitzera pasatzea. Erabakitze eskubidea lege bihurtzea. Horixe Gure Esku dinamikak hasi duen etapa berrirako xedea. Eta helburu horrekin jarri du martxan **Erreferendumaren aldeko Herri Ekimena**. Erronka kolektiboa izatea nahi dute. Herri erronka, ez bakarrik Gure Eskurena. Horretarako, beharrezkoa izango da ahalik eta herritar gehienekin konplizitatea eta konpromisoa lortzea. Datorren urteko ekaina aldera sinadura bilketa masiboa antolatuko dute Euskal Herri mailan, alderdi politikoak eta erakunde publikoak mugiarazteko. Josu Juaristi eta Amalur Alvarez bozeramaleak Oñatin izan ziren ekainaren 12an herri ekimenaren nondik norakoak azaltzen.

**ANE MERTZERIA**

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantzizak

Kale Barria, 54 OÑATI

**Cartonajes Arregui, S.A.**

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



**GURE  
ESKU**

## EGIZU POSIBLE

**Bazkide gehiago behar ditu  
Gure Eskuk autonomia izateko eta  
herri erronkari aurre egiteko**

**2.500** bazkide ditu egun GURE ESKU dinamikak eta askoz gehiago behar ditu tamaina honetako herri ekimen bat burura eraman ahal izateko; erabat autonomo izaten jarraitzeko, eta edozein eragile sozial, politikoa edo instituzionalekin batzartzen denean 'muskulua' erakutsi ahal izateko.

Kataluniara begiratzen badugu, Omnium eta ANC elkarteek adibidez, askoz ere bazkide gehiago dituzte. Eta Euskal Herrian bertan ere, kontuan hartuz giza kateak egin direnean 175.000 herritarrek parte hartu dutela, eta herri galdeketetan 218.000k, Gure Eskuk uste du badagoela bazkide kopurua biderkatzeko aukera. "Zenbat eta gehiago izan, urrunago iritsiko gara" diote.

Horregatik, bazkide kanpaina jarri dute abian 'Egizu posible' lelopean. Helburua ez da bakarrik sostengu ekonomikoa lortzea; "Komunitate honekin konprometituko den jendea behar dugu, dinamika elikatuko duena eta Gure Eskuren erabaki estrategikoetan parte hartuko dutena. Horregatik, kuotarik ordaindu gabe bazkide egiteko aukera ere badago, estutasun ekonomikoan dagoen jendeak ere bazkide izateko aukera izan dezan.

[www.gureesku.eus](http://www.gureesku.eus) webgunean dago bazkide egiteko aukera.

misoa lortzen saiatuko gara. Ez da nahikoa atxikimendua ematea; eragile bakoitzak bere egin behar du erronka. Guk plaza-ratu eta sustatu egingo dugu, baina eragile sozial eta politikoei konpromisoak hartzea exijituko diegu".

### KRONOGRAMA

Kronogramaz ere hitz egin zuten Gure Eskuko eledun berriek, garbi utziz, agian, unean uneko koiunturen arabera, doitu edo malgutu egin beharko dela.

Hiru fase izango ditu Herri Ekimenak: **saretzea, mobilizazioa eta eskaera gauzatzea**. Orain hasi eta datorren urteko uda bitartean saretze lana egiteko garaia izango da, erabakitzeko eskubidea gauzatzeraren alde dagoen oinarri sozial ahalik eta zabalena eraikitzeke garaia.

Datorren urteko ekainean mobilizazioaren unea iritsiko da. Hilabete batean erreferendumaren aldeko sinadura bilketa masiboa egitea da helburua, ikustarazteko Euskal Herrian gehiengo

sozial bat dagoela erabakitzeko eskubidearen alde. Azkenik, erreferenduma legezatzeko eskaera egingo da erakundeetan.

Ez zuten sinadura kopuruaz hitz egin nahi izan, baina garbi esan zuten Gure Eskuk orain arte ezarri dituen mugariak (175.000 pertsona giza-katean eta 218.000 herri galdeketetan) gainditzea dela erronka. "Ziur gaude gure etorkizuna erreferendum bidez erabakitzearen aldeko aldarrikapenak potentzialitatea daukala oiraindik oinarri sozial zabalagoak eraikitzeke" adierazi zuten Alvarezek.

### HERRITARRAK AHALDUNTZEA

Sinadura bilketa egiteko garaia iritsiko da, baina aurretik, herriz herri egin beharreko saretze lanean fokua jartzeko eskatu zuten Gure Eskuko ordezkariak, Kataluniako eredia aipatuz. "Katalunian gaur egun inork ez du zalantzan jartzen erabakitzeko eskubidea dutela, herritarrak ahalduzteko lan handia egin dutelako, herriz herri, auzoz

auzo. Eta hemen ere lanketa hori egitea dagokigu; lan isila, baina ezinbestekoa, banan banan herritarren konplizitateak lortu eta denon artean ahalik eta itsaso zabalena sortzeko".

Ildo horretan, gaineratu zuten, garrantzitsua dela galdera hau egitea geure buruari: zeinengana ez gara oraindik iritsi? Eta erantzuten saiatzea, herriko arlo guztiak landuz eta sentsibilitate ezberdineko herritarrengana iristeko ahalegina eginez.

'Ezer ez denean ziurra, dena da posible' da Gure Eskuren etapa berriko iparrorratza adierazten duen leloa. "Ziurrak ez diren garaiak bizi ditugu; Europar Batasunaren eredia ezbaian dago, Espainiak dituen gabezia asko agerian geratzen ari dira, eskubide asko jokoan daude, burujabetza mugimenduak indartsu datoz, eta testuinguru horretan inoiz baino aukera gehiago daude urrats eraginkorrak emateko, alternatibak eraikitzeke eta gure erabakiak gauzatzeke" adierazi zuten bozeramaleek. ■

**Datorren urteko ekainean erreferendumaren aldeko sinadura bilketa masiboa antolatuko du Gure Eskuk, eta ondoren erabakitzeko eskubidea legezatzeko eskaera egingo du erakundeetan**

  
**TABERNA • JATETXEA**  
Bidebarrieta 6  
Tel.: 943 71 62 96  
20560 OÑATI

**FAGOR**  
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



# Ostatu eskaintza askotarikoa, kalitatezkoa eta berezia

**Mota guztietako turisten gogoia asetzeko 400 bat ohe eskaintzen ditu Oñatik**

U da sasoiarekin batera goi-denboraldia hasten da turismo sektorearentzat. Baita Oñatiko ostatuentzat ere. Batzuek enpresekin lan gehiago egiten duten arren, udaldiarekin batera denek igartzen dute turisten gorakada. Azken bospasei urteetan, bereziki, gora egin du nabarmen Oñatira iristen den bisitari kopuruak, eta baita gurean egiten dituzten gaualdienak ere. Eta hori, neurri handi batean, gure herrian aurkitzen duten ostatu eskaintza zabal, berezi eta kalitatezkoari zor zaio. Hotel bihurtutako erdi aroko dorretxe historikoak, naturaz inguratutako ostatu eta apartamentuak, nekazaturismo etxeak, aterpetxea... mota guztietako turistak eta poltsikoak asetzeko moduko eskaintza du Oñatik, 400 bat oherekin, guztira.

Ildo horretan, azpimarratzekoa da ekimen pribatuak egin-dako ahalegina. Azken hamar urteetan 4 milioi eurotik gorako inber- tsioak egin dituzte instalazioak berritzen eta osatzen. Kalitate ziurtagiriak eskuratzeko egindako ahalegina ahaztu barik. Udalak eta bestelako erakundeek ere egin dute beren

ekarpena zerbitzu eta azpiegitura berriak sortzen (aterpetxea, autokarabanentzako gunea...).

Azken datu ofizialen arabera, %65 ingurukoa izaten da okupazio maila Oñatiko ostatuetan udako hilabeteetan. Beraz, badago oraindik hobetzeko tarterik, eta, duda barik, ekimen publiko-pribatuaren arteko elkarlana da turismo jasangarria sustatzeko modurik egokiena. Ildo horretan, erakunde publikoek barrualdeko eskaintza gehiago sustatu behar luketela uste dute Oñatiko ostatueta arduradunek, kostaldeko eta hiriburuetako turismora mugatu barik.

Bestalde, udako hilabeteetan Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzua larunbat eta ostiraletara zabaltzeko aukera aztertu beharko litzatekeela uste dute Arantzazuko establezimenduek, gero eta gehiago direlako autobusez bidaiatzen duten turistak. Eta aspaldiko beste erronka bat ere bai: abuztuan zerbitzu eta ekitaldi gehiago egotea Oñatin. Bizitza apur bat egotea, alegia. ■

## Etxe Aundi (H\*)

943 781 956 / [www.etxeaundi.com](http://www.etxeaundi.com)

**Ganboatarren gotorleku izan zen dorretxea**



XIII. mendean eraikitako dorretxea. Lazarragarren leinu-etxea izandakoa. 1986an zabaldu zituen ateak Etxe Aundi hotel eta jatetxeak, jatorrizko etxearen egitura eta hormak mantenduz. 11 logela handi eta eroso eskaintzen ditu, beharrezko ekipamendu guztiekin. Ostatu eta gosari zerbitzuaz gain, bazkaltzeko edo afaltzeko eta euskal sukaldaritza tradizional onena dastatzeko aukera ere badago jatetxean.



Jatorrizko eraikinaren egitura ea hormak mantenduz egokitu zuten hotela Etxe Aundin

## Goiko Benta ostatua (P\*)

943 781 305 / [www.goikobenta.com](http://www.goikobenta.com)

**Jorge Oteizaren Etxea Arantzazun**



Antzinako kutsuari bere horretan eusten dion atseden lekua da Goiko Benta. Arantzazuko basilikaren eraikuntza garaian Oteiza, Oiza, Lucio Muñoz eta beste hainbat artistaren topalekua izan zen, eta orduko oroipen eta aztarnak gordetzen ditu. Ehunka urteko historia du Goiko Bentak. Gaur egun 10 logela eder ditu, erabat berrituak, baina betiko Bentaren xarmari eusten diotenak. Etxeko sukaldaritza eta gozogintza tradizionalaz gozatzeko aukera ere badu bisitariak bertako jatetxean.



Oteiza, Sáenz de Oiza eta beste artista batzuen lanak ikus daitezke Goiko Benta ostatuan. Erdiko irudian dago Oteizak igeltsuz egindako Pietatearen eskultura

## Zumeltzegi Dorrea (H\*\*\*)

943 540 000 / [www.hoteltorrezumeltzegi.com](http://www.hoteltorrezumeltzegi.com)

### Kondeek bezala lo egiteko



XIII. mende amaierako eraikina. Gebarako kondeen boterearen sinboloa, hotel bihurtuta. 12 logela eder eta eroso ditu, erdi aroko kutsua mantentzen dutenak, harri-orma sendo eta egurrezko egitura originalak konbinatuz. Terraza ederra eta ikuspegi zoragarriak ditu. Euskal sukaldaritza tradizionala eta sasoiako produktu freskoek gozatzeko aukera ere badago bertako jatetxean.



Erdi aroko kutsuari eusten diote logelek, harri-orma sendo eta egurrezko egitura originalak konbinatuz

## Sindika (H\*)

943 781 303 / <https://hotel-sindika.com>

### Benta zaharra, amildegi eta haitzartean



Arantzazuko punturik altuenean, naturaz inguratutako hotela. Ikuspegi paregabeak eskaintzen ditu mendi aldera, amildegira edota santutegira. Tamaina ezberdineko 35 logela ditu. Hiru jangela ditu hotelak, sasoiako produktuz egindako gastronomia tradizionalaz gozatu ahal izateko. Hitzaldiak eta talde edo enpresa-bilerak egiteko prestatuta dauden gelak ere eskaintzen ditu.



## Ongi ostatua (H\*)

943 718 285 / [www.hotelongi.com](http://www.hotelongi.com)

### Herrigune historikoan kokatua



Herrigune historikoan kokatutako hotela. Erosotasun guztiakin hornitutako 18 logela ditu, banakakoak edo binakakoak, guztira 35 lagunentzako tokiarekin. Buffet erako gosari ederra egiteko aukera eskaintzen du bere egongela goxoa, eta baita taberna-kafetegi zerbitzua ere. Aukerakoa etxean bezala egon nahi duten enpresarientzat eta Oñatiko inguruak ezagutu nahi dituzten familientzat.



Erosotasun eta zerbitzu guztiakin hornitutako 18 logela ditu Ongi Hotelak

## Arantzazuko Santutegia (H\*\*\*)

943 781 313 / [www.hotelsantuariodearantzazu.com](http://www.hotelsantuariodearantzazu.com)

### Ondarea eta modernitatea uztartuz



Hiru mendez erromesen aterpetxe izan ondoren, goitik behera berritutako hotela, arkitektura eta diseinu modernoarekin, baina kultur ondarea eta espiritualtasuna errespetatuz. 46 logela ditu, bezeroei ongizate maila handiena eskaintzeko ekipatuta. Ezinduentzat egokituta. Talde bilerak egiteko gelak ere baditu. Sukaldaritza tradizionala eta modernoaz gozatzeko aukera ere eskaintzen du Hospederia jatetxean.



46 gela eder, relax eta fitness guneekin, bakea, atsedena eta lasaitasuna nahi dutenentzat

## Arantzazuko Borda apartamentuak

628 132 412 / <https://bordaaranzazu.com>

### Amildegira begira dagoen borda zaharra



Arantzazutik Urbiarako bidean, kokapen pribilegiatua duten bordak. Eraikinaren alde oso bat beirazko horma batek osatzen du, eta horrek berezi eta ikusgarri egiten ditu apartamentuak. Bi solairuko etxe goxo eta erosoak dira. Beheko solairuan egongela, sukaldea eta bainugela daude, terraza batekin. Goikoan, logelak. Den-dena egurrez eta harriz eraikia.

Kokapen pribilegiatua eta ikuspegi paregabeak eskaintzen dituzten bi apartamentu goxo eta eroso



## Arregi nekazalturismoa

943780824 - 943783657 / [www.casaruralarregi.es](http://www.casaruralarregi.es)

### Naturaz eta zelaiz inguratutako gunea



Bertako estilora eraikitako etxea, harriz eta egurrez egindako konbinazio harmonikoan, zelaiez inguratua, bista zoragarriekin. Komuna duten sei logela bikotiz dauzka, eta tximinia eta telebista duten bi egongela. Bezeroentzako gosari eta afari zerbitzua ere eskaintzen du, eta etxe osoa alokatuz gero, sukaldea erabiltzeko aukera ere bai.



Sei logela edota etxe osoa alokatzeko aukera ematen du Arregi nekazalturismo etxeak

## Arantzazu aterpetxea

943 780 500 / [www.arantzazuaterpetxea.com](http://www.arantzazuaterpetxea.com)

### Natura, kultura, espiritualitate... bila dabilzanentzat



12 oheko 4 logela eta 4 oheko 2 ditu Arantzazuko aterpetxeak. Jantoki zabala eta sukaldea erabiltzeko aukera era bai. Gosariak ere ematen dituzte. Behar bereziak dituzten pertsonentzat egokituta dago. Talde, erromes eta umeentzako eskaintza bereziak daude.



## Urbiako fonda 943 781 316

### Atsedena gunea, Aizkorriko bidean



Urbiako fondan 20 ohe ditu lau logelatan banatuta. Uda sasoian eskaini ohi dute logela zerbitzua, baina une honetan berritze prozesuan ari dira. Lo egiteaz gain, otorduak ere egin daitezke Urbiako fondan.

## AK Gunea

### Autokarabanentzako gunea



18 plaza dituen doako gunea, ur edangarriarekin eta ur zikinak husteko aukerarekin. Komuna eta piknik gunea ere baditu.



Ramon Irizar kalea, 3  
Tel: 943 71 61 60  
[etxian@etxian.net](mailto:etxian@etxian.net)

[www.etxian.net](http://www.etxian.net)



carpintería  
**GARIBAI**  
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • [garibai@garibai-aroztegia.com](mailto:garibai@garibai-aroztegia.com)  
[www.garibai-aroztegia.com](http://www.garibai-aroztegia.com)

## Udaldirako eskaintza

### 'OÑATIKO ALTXORRAK'

Sancti Spiritus unibertsitatea eta San Migel eliza ikusteko bisita gidatuak eskainiko ditu turismo bulegoak uztailako asteburu eta jai egunetan, eta abuztuaren egunero.

**San Migel errota.** Erdi aroko errota bat lanean ikusteko aukera egongo da turismo bulegoan.

**Txokolateixia.** Bisita gidatuak egiteko aukera egunero, 12:00etan (605763595)

### 'IGNAZIOTAR LURRALDEA'

'Frantzisko Borjakoa Oñatin'. Bisita gidatua Madalenako ermitara. Uztailak 13, turismo bulegoan, 11:00.

### ARRIKRUTZEKO KOBAK


Uztailaren letik irailaren 1era egunero bisitatu ahal izango da turismorako egokitutako 53 Galeria (943082000).

### ESPELEO TXIKI

Lurpeko mundua (estalaktita eta estalagmitak, animaliak...) ezagutzeko plan biribila, familia giroan ezin hobeto pasatzeko. Uztailak 7, 13, 28 eta abuztuak 4 eta 17an, 15:30etan. (943082000).

### ESPELEO-ARRIKRUTZ

Lurpeko mundua ezagutzeko aukera paregabea: eszentriko multzo ikusgarrien sekretuak, Aldaola errekarren lurpeko bidea... Uztailaren 2lean eta abuztuaren 10ean (09:30).



## 'Lope de Agirre' liburua aurkeztuko du Oñatin Alvaro Bermejok

Uztailaren 5ean, kultur etxeko zine aretoan (19:00) aurkeztuko dute 'Lope de Agirre' liburua Alvaro Bermejok (Donostia, 1959) historialari eta idazleak, eta Joseba Urretabizkaia (Tolosa, 1965) argazkilaria eta editoreak.

Azken honek zuzentzen duen *Xibarit* argitaletxeak plazaratu du liburua. Urretabizkaia eskal kultura eta historiarekin lotutako gaiak jorratzen ditu eta 'Lope de Agirre' liburuarekin emango dio hasiera pertsonaia historikoen sailari.

Alvaro Bermejok idatzi du liburua, Loperi buruzko dokumentazio asko baitu idazle donostiarrak. Baina testuaz gain, argazkiek ere pisu handia dute liburuan, eta goiko irudian ikusten den moduan, Rafa Aranburu oñatiarrak ipini dio aurpegia Loperi, eta Agustin Goenaga ere agertzen da *Marañon* baten azalean. Goenagak 1983an grabatu zuen 'Agirre' film laburra ere ikusi ahal izango da aurkezpen ekitaldian.



## Xabier Ugarte aske geratuko da uztailaren 28an

Kartzelan 22 urte eman ostean, uztailaren 28an geratuko da aske



Xabier Ugarte Billar (Oñati, 1960).

Ugarte 1997ko uztailaren 1ean atxilotu zuen Guardia Zibilak, Jose Antonio Ortega Lara kartzela funtzionarioa askatzearekin batera. Bi bahiketatan eta gaurdia zibilaren aurkako atentatu batean parte hartu izanaz akusatu zuten.

Preso egon den urteetan dispersioaren ondorioak jasanez behar izan ditu, *Carabanchel* eta *Valemore* (Madril), *A Lama* (Pontevedra) eta *Topaseko* (Salamanca) kartzeletan egon delarik.

### GAINERAKO PRESOK

Ugarte aske irten ondoren hiru oñatiar geratuko dira espetxean. Xabin Usandizagak ere 22 urte darama preso eta 2020rako du irteera data. Cordoban dago preso.

Joseba Arregik 27 urte darama preso, baina 2028an du ezarria irteera data, espainiar justiziak ez duelako aintzat hartzen Frantzian betetako 10 urteko zigorra. Arregik 73 urte ditu. Alakanten dago.

Gotzon Telleria 2017ko otsailan atxilotu zuten Mexikon leporatzen dizkieten kausak preskribatzeko hilabete falta zela, eta 30 urteko zigorrari aurre egin behar dio. Madrilgo Estremeran dago preso. ■

**smk**  
san miguel kooperatiba  
943 781 217  
kale barria 8 - 20560 oñati  
www.sanmiguel.coop

**EGUR-LAN**  
ARROZTEGIA  
LIMABAR S.A.L.  
BEREZAIO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
TEL FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com  
www.egur-lan.es



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlanean izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

**Bidaurreta Dorrea z/g**  
**20560 OÑATI**  
**Tel.: 943 78 20 72**  
**kontzejupetik@onati.eus**



Argazkia: Félix Sánchez



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## KONTZEJUPETIK

### Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

### Zuzendaria:

Iñigo Arregi

### Publizitatea:

Aratz Losada

### Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

### Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

### Inprimategia:

Gertu

### Tirada:

5.500 ale

### Lege gordailua:

SS-357/91

### Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

### Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa  
20560 Oñati (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 20 72

## Nafarroa, estatu afera? Norentzat?

Beñi Agirre

Albako bigarren dukearen agindupeko tropek Iruñea errenditu eta indarrez menderatu ostean, Nafarroa Garaia Espainian txertatzeko kontakizuna zuritzea benetako burukomina izan da estatu horrentzat. Ezin da justifikatu. Bertakoekin kontra bortxaz irabazitako lurraldearen jabetzea ez baita izan inon, inoiz, zilegi.

Nafarroa Garaia estatu afera da. Gaztelarentzat "Konkista eskubidea" Erdi Aroko kontzeptu inperiala bidezko azken ahalegina. Euskalnafarrantzat, aldiz, XXI. mendean subjektu historiko eta politiko izaera zilegitzeko baliabide demokratikoa. Bi kontakizun, bi ikuspegi eta bi errelato aurrez aurre jarrita. Gaur, berdinketa egoeran daudenak dirudienez.

Lehenengo eta behin zorionak "lauko aliantzari", lau urtez Nafarroa Garaia, hiriburua eta udal txikiagoak ere etenik gabe kudeatzeagatik; lau ituna iraunarazteagatik. Bostehun urteko haurlauza gainetik kentzea ez dugu lau urtetan arinduko, ez horixe. Hala ere, ziur al zaudete lau urteen eguneroko kudeaketaren honestasuna izan dela nafar gizarteak zuen lana hobesteko ala baztertzeko gako nagusia? Non geratu da euskalnafarra izatearen

arrotasuna azaleratzea? Konkistak ez direla zilegiak errebindikatzea? Nafarroa ez dela Espainia argitzea? 1512koak ez duela Espainiaren 500 urteko batasuna zilegitzen, baizik eta salatzen? Nafarroa Sumakoek ez dute besterik egin, eurek direla nafarrak

eta ez gu errepikatu baino. Nire uste apalean, buruzagi politiko ona da herritarrei identitatearen berreskurapena ahalbidetzen diona; kudeaketa bikainez ahal delarik, baina norabaitera joateko. Hori da estatu afera guretzat. ■

## OHAR ETA DEIALDIAK

### Igeriketa ikastaro eta ur-ekintzetarako izen-emate deialdia

Ikasturte berriarekin batera, urritik abendura bitartean kiroldegian emango diren igeriketa ikastaroetan (haur eta helduentzat) eta ur-ekintzetan (*Aquagym* eta *Aquatrining*) izena emateko epea **uztailaren 15etik 19ra** irekiko da. Kiroldegian bertan, eskuz, edo [www.onati.eus/zerbitzuak/kirolak](http://www.onati.eus/zerbitzuak/kirolak) atarian eman ahal izango da izena. **Irailaren 11tik 14ra** izena emateko bigarren epea irekiko da. Ondoren, irailaren 20an argitaratuko dira behin-behineko zerrendak.



### HOTZ-OÑATIren zozketa berezia uztailean

'LAGUNDU LAGUNTZEN' ekimenaren baitan, Hotz-Oñati taldeak zozketa berezia egingo du uztailaren 13an, Foruen plazan ipiniko duen postuan. Ondutako ardo botilak, *delicatessen* produktuak eta *Box-Travel* sariz osatutako hiru otar zozkatuko dituzte. Txartelen prezioa. 1€.



### Larrañako aterpetxeko errefutxiatuei udan laguntzeko **boluntarioak** behar dira

Ikasturtean zehar hainbat herritar aritu dira errefutxiatuei gaztelaniazko eskolak ematen eta bestelako aisialdi jarduerak antolatzen, eta irailean ere jarraitzeko asmoa dute askok, baina udan etenalditxo egin nahi dute indarberritzeko. Horregatik, boluntarioak behar dira udako hilabeteetan lan horri jarraipena emateko. Interesatuak deitu: 943 009 049 (Erika/Nerea).



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 11 15 • [www.batuak.com](http://www.batuak.com)



## Iluntasunean argiaren magia

Argazkigintzaren ia osagai nagusia argia da. Gauez, argi gutxi dagoen arren, argazkigintzako teknikak baliatuz argazki ezberdinak atera daitezke. Edizio pogramak eta erretokea erabili gabe, kantoikritek daukan magia argiarekin bakarrik azaleratzea alegia...



ASIER EGAÑA

## Kubako nazio errebeldiaren eguna ospatuko dute uztailaren 26-27an

ACESMA elkarteak antolatuta, Kubako nazio errebeldiaren egunaren 66. urteurrena ospatuko da uztailaren 26an. Egun horretan Kubatar kontsulatuaren zerbitzuak egongo dira Antixena gaztetxean 15:00-20:00 bitartean.

Hurrengo egunean ere (uztailak 27) kubatar kontsulatuaren zerbitzuak egongo dira gaztetxean (10:00-13:00). Ondoren bazkaria egingo dute bertan eta bazkalostean SON.LT taldeak kontzertua eskainiko du.

lanerako gertul!

# Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

2019-2020

Oñati gestio heziketa **MGEP**  
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

### Matrikulazioa

Uztailaren 11tik 17ra

### Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
<ul style="list-style-type: none"><li>•Administrazioa eta Finantzak</li><li>•Zuzendaritza Idazkaritza</li><li>•Salmenta Kudeaketa</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>•Automatizazioa eta Robotika Industrialia</li><li>•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa</li><li>•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua</li><li>•Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa</li><li>•Mekatronika Industrialia</li></ul>

[www.mondragon.edu/ogh](http://www.mondragon.edu/ogh)  
[rigarza@mondragon.edu](mailto:rigarza@mondragon.edu)  
943 71 80 09

[www.mondragon.edu/gmh](http://www.mondragon.edu/gmh)  
[gmhz.mgep@mondragon.edu](mailto:gmhz.mgep@mondragon.edu)  
943 71 21 91

LABORAL KUTXA HETEL Fp Mondragon Unibertsitatea



OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

*Gure ekintzen berri emango duen atala...*

## LUDOTEKA ETA TXIPISTIN ZERBITZUEN IKASTURTE AMAIERA

Kurtsoa amaituta oso balorazio positiboa egiten dugu bai Txaloka Udal Ludotekatik eta baita Txipistin programatik ere. Urtero bezala herrian eta ludotekan hainbat ekintza egin ditugu, hala nola, aste-santuko eta Gabonetako ekintza bereziak, ludoteka ibiltaria, ... Eskerrak eman nahi dizuegu urte guztian zehar antolatutako ekintzetan parte hartu duzuen haur, gazte eta familia guztioi. Izan ere, zuek barik ezinezkoa izango litzateke ekintza guztiak aurrera eramatea, mila mila esker!

Bestalde, aipatu Ludotekako eraikinean egiten ari diren lanen ondorioz ikasturtea Gaztelekuko Sotoan bukatu behar izan dugula. Dena den, Oñatiko jaien ostean berriro ere Lizaur kaleko eraikinean egotea aurreikusten dugu, Ludoteka berrituan!

Beraz, esan bezala ikasturtea bukatu dugu, eta burututako ekintza polit batzuen argazkiekin esango dizuegu agur beraz ...

Orain, udaleku irekiei eman diogu ongi etorria. Aurten 651 haur egongo dira bertan, berriro ere inoizko kopururik altuena. Eta haurrek, euskaraz jolastuz, lagunartean ondo pasatzeko gunea izango da. Guzti hori kudeatzeko asmoz 73 hezitzaile, 5 koordinatzaile eta Haur eta Gazteria Teknikaria izango gara Gaztelekuan, uztailearen 1tik 26rako goizetan.

Milesker guregan jarritako konfiantzagatik!!



**AGENDA:** 19.07.1etik 19.07.26ra Udaleku Irekiak eta Arte Udalekuak. | 19.07.9 Arcachon (Frantzia) ur parkera irteera (DBH2). | 19.07.10 LH3 eta LH4koen irteera. | 19.07.16 Zarautzeko Hondartzara Irteera irekia. | 19.07.17tik 19.07.19ra LH 6ko irteera Senpere + Donostia. | 19.07.18 Salting-era (DBH 1). | 19.07.23 Donostiako Hondartzara irteera irekia. | 19.07.24 eta 19.07.25 LH 5ko irteera Paint ball + Hondarribia. | 19.07.2-9-16-23 Usakora arratsalde pasa, uztaileko astearteetan.

# URTEURREN OROITZAPENA



Uztailaren 1ean 50. urteurrena bete da Mendiguren familiak, hau da, Mendigurentarrek Hotel Ona eta Oñati utzi zutela. Maitasunez gogoratzen dut 1952ko urtea, Portugaletetik (Bilbotik) Oñatira iritsi eta Perratzaile izenez ezaguna zen Hotel Ona gobernatzeko hasi ginenekoa, Alzaa kaleko (gaur Kale Zaharra) 15ean. Hasieran ez genuen oso harrera onik izan; gehienek uste zuten ez genuela urtebete iraungo Hotelean, besteak beste, errenta altuagatik. Baina ia hemezortzi urte igaro ziren, 1952tik 1969ra, eta hankaz gora bota genituen gaizki esaka ari zirenen aurreikuspenak. Gogor, oso gogor lan egin behar izan genuen, berritasun gastronomiko askorekin, hala nola, Tigre ospetsu eta harrera paregabea izan zuen Ona Legatza banderilla bikainarekin.

Istoria eta bitxikeria asko kontatu nitzake, baina birekin geldituko naiz.


Oñatira bidean —hiru ordu behar zituen Vasco-Navarro trenak Atxuri/Maltzaga/San Prudentzio/Oñati bidea egiteko— zera esaten zigun gure ama zenak: “nahi adina txokolate jan ahal izango

duzuen herri batera goaz. Zazpi txokolate lantegi daude bertan”. Eta halaxe zen, bai, zazpi. Horietako bat, Chocolates Gereka, Hotelaren aidamenean.

Lehen esan dudan moduan, ez genuen harrera onik izan. Kanpotarrak ginen, eta gazteriak ez gintuen onartzen. Beraz, gure “kuadrillatxo” osatu genuen, kanpotik etorritako beste familia batzuekin: Mendikoatarrak, Yaniztarrak, Lanatarrak ... Urte batzuk igaro, eta, Aloña Mendiko gazte mailako taldean jokatzeko hasi orduko, bihurtu ginen txantxiku, bere ondorio guztiekin.



**Fernando  
Mendiguren**



Ricardo Mendiguren Hotel Onako atarian.

Gizonduz joan ginen, poliki-poliki, pertsona bezala haziz eta osatuz, Oñatiko herriaren laguntzarekin, eta bai nire anaiak eta bai nik neuk ere familiak osatu genituen Oñatiko emakumezkoekin eta bertan bizi izan ginen Cegasa Gasteizera lekualdatu zen arte. Orduan, berriz ere maletak egin behar.

Gure anaia Xabiren istripuak, familiako buru zen gure aitaren heriotzak -1966an-, eta beste anaia eta biok Gasteizera joateak eragin handia izan zuten eta, hala, 1969ko uztailaren 1ean Hotela utzi behar izan genuen, eta gure ama Bilbora bueltatu zen.

Oñatik lagundu zigun familiako kideen arteko harremana mantentzen; izan ere, lekualdaketeekin gutxitzen ari zen.

Oñatik lagundu zigun gure giza garapenean.

Oñatik lagundu zigun gure eskola, gizarte eta kirol gaitasuna garatzen.

Oñatik lagundu zigun gure egoera ekonomikoa hobetzen.

Oñatik lagundu zigun gure euskaldun nortasuna sentitzen.

Oñatik lagundu eta irakatsi zigun beste hainbat gauza ...

Kontzejupetik aldizkariak eskaintzen dizkidan lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkiot Oñatiko herri osoari Mendiguren familiarekin izan zuen eskuzabaltasunagatik, eta gure bizitzako garai hartan pertsona bezala garatzeko emandako laguntzagatik.

Oñati, zure esanetara naukazu, nahi duzunerako.

Eskerrik asko, Oñati. ■

 **COINBROKER**  
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA  
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

☎ 943 089 006 ✉ [oinati@coinbroker.eus](mailto:oinati@coinbroker.eus)  
🌐 [www.coinbroker.eus](http://www.coinbroker.eus)

 *Amalia Igartua*  
**ARKITEKTURA ESTUDIOA**

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)  
-Ilogailuen eta 0 kotara proiektuak -Eraikinen mantentze planak (PUM)  
-Jarduera lizentziak -Fatxaden eraberritze energetikoa -Diru laguntzen gestioa

tel: 677 31 20 57 • email: [amaiigartua@gmail.com](mailto:amaiigartua@gmail.com) • Oñati



**Guardia Zibila joan dadin eskatzeko 1.800 sinadura baino gehiago lortu ditu Jare Kuartela ekimenak**

## JARE KUARTELA HERRI EKIMENAK, OÑATIKO HERRIARI

Maiatzaren 15ean eman genion hasiera firma bilketa kanpainari, eta hilabeteren buruan, Jare Kuartela egunean, bukatu. Ekimen berriak edo hurrengo pausoak zehaztu aurretik, hilabete bizi honen balorazioa eta hausnarketa plazaratu behar dugulakoan gaude.

Guztira hamar aldiz izan gara kalean, gune ezberdinetan. Hamar aldiz atera gara, eta 1800 babes-sinadura baino gehiago lortu ditugu. Espero ez genuen atxikimendua jaso dugula esan dezakegu lotsagorritu barik; hilabete lehenago esan baligute milatik gora ez ezik ia bi mila ere lortuko genituela, ez genukeen sinetsiko.

Babesa jaso dugu ehundaka herritarren eskutik, baina ez da beti sinadura moduan izan. Argazki soziologikoa egiteko parada ere eskaini digu kale presentzia horrek, eta nabarmentzekoa deritzogu honakoari: ez batek eta ez bik, adineko hainbatek batez ere, beldurra dio horrelako ekimen bat izen eta abizenez babesteari. Galdetu digute ea Guardia Zibilak ikusiko dituen paper horiek, ea derrigorra den NAN zenbakia eta datuak ematea... Ez dira gutxi horregatik atzera egin dutenak. Bakarra izango balitz ere, gehiegi da. Herritarrengan diktadura garaiko zein azken berrogei urteotako gertaera lazgarri asko memoria kolektiboan iltzatuta geratu direla argiro ikusten dugu hor, eta gertaerok Guardia Zibilarekin zerikusi zuzena daukate. Beste arrazoi bat Oñatiko kuartela hustu eta herriak erabil dezan.

**Hainbat pertsonak, adinekoek batez ere, beldurra diote horrelako ekimen bat izen eta abizenez babesteari, eta nabarmentzekoa iruditzen zaigu**

Bestalde, kale presentziak eman digun aipatu argazki horri beha jarraituz, oso pozik gaude adin, kolore politiko eta sozial askotariko jendea hurbildu zaigulako. Arrakastaren oinarrietako bat askotariko jendeak bere babes apala eman izana da, eta garaikur bat da hori herriaren nahia aldarrikatzerako orduan. Joan daitezela, Oñatik joan zaitezten nahi du, eta zilegitasuna eta arrazoia baditu. Beraz ekimena babestu duzuen bakoitzari zor zaizue arrazoia eta zilegitasuna.

Amaitu aurretik, eskerrak eman nahi dizkizuegu sukalde lanean elkarrekin jardun duzuen lagunei ere, ekimena babesteko taberna itxi zenuten langile eta ugazaba guztiei, bideoan agertzeko prestutasuna izan duzuen eragileei, etxez etxe informazioa banatu duzuenoi. Hori gabe ekainaren 15eko argazkia ez zen posible izango.

Baina bai, beste behin, herriak argazki demasa, mundiala lortu du behin betiko auziari amaiera bat eta bakarra eman dakion. Ez ditugu kontatu, ez dakigu 800, 1000 edo 1200 pertsona dauden argazkian. Baina zifra ez da astakeria inondik inora, eta pozik eta harro gaude.

Jarraipena izango du. Atxikimenduak udalari helaraziko zaizkio eta eman beharreko hurrengo pausoak zeintzuk diren jakinaraziko dugu. Herriak eta instituzioek elkarrekin, lortuko dugu. Oñatitik hasita, Euskal Herria desmilitarizatu arte. Kalean ikusiko dugu elkar!

### ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK**

**LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK**

Aran Hernández

Zure ETXEA eguneratu gutxieneko inbertsio bat erabiliz bere salmenta edota alokairua erazteko

626 114 382

aranhernandez@aranhernandez.com

**GARBIKETA  
ADMINISTRAZIOA  
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak

653 70 45 47

Oñati

PINTURAS

# URBIA

MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

# ENARAK

## 60-70. hamarkadetan Oñatira etorri ziren migratzaileen omenezko liburua

1960-70. hamarkadetan Espainiako herri ezberdinetatik Oñatira bizibide bila etorri eta bertan sustraiak bota zituzten migratzaileen omenezko liburua ('Enarak') argitaratu du udalak, 'Jerardo Elortza' bildumako bigarrena.

"Sorterria utzita, lan eta bizibide bila etorri ziren pertsona guztiei eskainitako liburua da, herriaren alde egindako lana eta bertan integratzeko egindako ahalegina eskertuz. Zuen ekarpenari esker Oñatiko herria anitzagoa eta aberatsagoa izaten lagundu duzuelako" adierazi zuen Mikel Biainek, alkate gisa egindako azken agerraldi publikoan.

Amagoia Gurrutxagak (Azpeitia, 1971) idatzi du liburua, David Zapirainen zuzendaritzapean, eta hamaika herri ezberdinetatik Oñatira iritsi ziren hamalau herritarren testigantzak, bizipenak, oroitzapenak eta sentimenduak bildu ditu.

Sorterria uztera behartu zituzten arrazoiak (lanik eza, gosea, gerra osteko errepresioa...) bidaia nola egin zuten, Oñatin izan zuten harrera ea bertan bizi izandako esperien-



Liburuko protagonistak

tziak kontaktzen dituzte liburuan, garai hartan gure herrira iritsi ziren ehunka etorkinei ahotsa jarriz.

Siadeco-k bere egunean egindako txosten baten arabera, 1970ean Oñatik 10.668 biztanle zituen, eta horietatik 1.900 (%17,8) ziren Euskal Herri kanpotik etorriak.

Oro har, Oñati harrera-herri ona izan dela aitortzen dute, eta eskertuta daude, bizibidea aurkitu eta familia osatzeko aukera izan zutelako; baina une zailak eta bazterketa bizi izan zituztenen testigantzak ere irakur daitezke.

Liburu oso gomendagarria, benetan, etorkin belaunaldi hura hobeto ulertzen laguntzeko. Txokolateixan eta herriko liburu dendetan eskura daiteke liburua 10 eurotan. ■



## 'Oteiza eta Arantzazuko estatuaria, 1950-1969' erakusketa ikusgai Gandiaga Topagunean

50 urte betetzen dira aurrean Oteizaren apostoluak eta Pietatearen irudia Arantzazuko basilikan ipini zirenetik, eta hori gogoratzeko eta, batez ere, Oteizaren lana, eboluzioa eta esanahia ulertzeko, **Oteiza eta Arantzazuko estatuaria, 1950-1969** programa antolatu dute Jorge Oteiza Fundazio-Museoak, Arantzazu Gaur fundazioak eta bertako frantziskotarrek. Programa horren baitan, erakusketa bana prestatu dute Oteiza Museoan eta Gandiaga Topagunean. Urriaren 27ra arte egongo dira ikusgai.

Arantzazuko fatxadara iritsi arte, Oteizak jorratu zituen bilaketa kontzeptual eta sinbolikoak ulertzen lagunduko digu erakusketak, artistak berak igeltsuz egindako 40 bat eskulturaren bidez. Arantzazun burutu zuen esku-hartzearen kronologia eta, hamalau urtez apostoluak bide bazterrean edukitzera behartu zuten elizaren betoen zergatiak ere azaltzen dira. Besteak beste, Oteizak, Larak eta Basterretxeak beraien lana azalduz Erromara bidali zuten txostena ere ikusgai dago. Gainera, Oteizak berak Super-8an grabatu zuen bideo bat ere ikus daiteke.

## V. Kaligrafia jardunaldiak Arantzazun



**TAILERRA** Euskal Herriko Unibertsitateko Letraz ikerketa taldearen eta Arantzazu Gaur Fundazioaren elkarlanari esker V. Kaligrafia Jardunaldiak egingo dira Gandiaga topagunean uztailaren 19 eta 20an. **Carolina** eta **Humanista** letra tipoak landuko dituzte Ivan Castro adituaren eskutik.

## 'Ezusteak' erakusketa ikusgai turismo bulegoan



**ERAKUSKETA** Orbelaun taldea osatzen duten Angel Mari Milikua, Imanol Artola, Iñaki Jauregialtzo eta Esteban Kerexetaren artelanak ikusgai daude turismo bulegoan, urriaren 15era arte (9:30-14:00 / 15:30-19:00).

**MENDI IRTEERA / Uztailek 20-21****Hiru Erregeen Mahaia**

Irteera, larunbatean, goizeko 6etan Korreos parean. Egun horretan Chenebral de Gamueta (2.329 m) igoko dute, eta Linzan lo egin ostean, hurrengo egunean Hiru Erregeen Mahaia (2.450 m) 17km eta 1.300m.+ . Prezioa: 60€ (ez-bazkideek 70€; ikasle eta langabetuek 50€). Izen-ematea **uztailaren 17ra arte aloña-mendi.mendi@gmail.com** helbidean. Diru sarrera egiteko: ES62-3035-0005-33-0050002973 (Kontzeptua: **Hiruerregeen mahaia + izen-abizenak**).

**Garazi Erostarberen lehen garaipena afizionatuetan**

**TXIRRINDULARITZA** Murias-Limousin taldeko Garazi Erostarbe oñatiarrak Agurainen jokatu zen XIX. San Juan Saria irabazi zuen ekainaren 20ean Euskaldun txapelketarako puntuagarria. Bere taldekide Maite Arraizak eta Irantzu Belokik (Gipuzkoa Ogiberri) osatu zuten podiuma.

**XIV UDANA IGOERA 2019**  
**uztailek 27**

**ZOKKETA**  
SINDIKA SARIA  
ARREGI NEKAZALTURISMOA SARIA  
TORRE ZUMELTZEGI SARIA

**LAGUNTZAK**  
GUREIA ARDOAK  
Aurora Beretxea  
ZURICH AIRCOURT

**sarrera**

Laguntzak:  
Aurora Beretxea 8€ - igotza eguneko 10€  
Zokketa, igoerako: sari barietatean egongo da.  
Zerbitzu saria, prentsean eta 1 sari nagarria da.  
Sarrera horiek 2000€ inguruko sari barietatean daude. Ez arazi ofiziala ez sari barietatean.

Sarrerak  
8€ balio  
du aurrez  
erosita.  
Egunean  
bertan 10€

**Emaitza bikainak Aloña Mendiko igerilarientzat**

**IGERIKETA** Aloña Mendiko igerilarien prestaketaz arduratzeaz gain, Josune Odriozola bera ere konpetiziora itzuli da, eta oso maila onean. Ekainaren 15-16an Tenerifen jokatu ziren igeriketa egokituko Espainiako txapelketan hiru domina lortu zituen: urrea 50 Bizkarrean, zilarra 400 Krolean eta brontzea 200 Krolean.

**EUSKAL HERRIKO TXAPELKETAK**

Alebin eta Infantil mailako Euskal Herriko Txapelketan emaitza bikainak lortu dituzte Aloña Mendiko igerilariak. **Kepa Aldekoak** urrea irabazi zuen 200 Bizkarrean eta zilarra estilo bereko 100ekoan. **Enaitz Ibabek** zilarra 100 eta 200 Bizkarrean (bietan Espainiako txapelketarako minimak lortu ditu) eta **Ekain Gorgoñonek** zilarra 400 Krolean.

**GORDOA, UR IREKIETAN**

Xabier Gordoak bigarren sailkatu da Espainiako ur irekietako 'Open' txapelketan Banyoles-en, 3 km.-tako zeharkaldian.

**UDANAKO IGOERA  
uztailaren 27an**

Sarrerarekin batera **asteburuko hiru egonaldi** (Zumeltzegi dorrean, Arregi nezakal turismoan eta Sindikako bordetan) zozketatuko dira

Badator motorzaleen urteko hitzordu nagusia. *Escudería Udana-Oñati Motor Taldeak* antolatuta, XIV. Udanako Igoera jokatu da uztailearen 27an, Euskal Herriko Mendiko Igoeren Txapelketako 6. proba puntuagarria.

Bertan izango dira Euskal Herriko piloturik azkarrenak, Aitor Zabaleta buru dela. Pilotu bergararrak hamaika aldiz irabazi du Udanako igoera, eta berak du errekorra (2.11:667) iaz lortutakoa. Aurre egiten saiatuko direnen artean, Joseba Olea eta Asier Bidaburu aipatu behar monoplatzetan, eta Bruno Scherer (Porsche) eta Javier Elortegi turismoetan. Oñatiarrei dagokienez, ez dakigu oraindik zenbat izango diren irteera marran, baina aurreratzeko moduan gaude bertan izango direla Ruben Nogueiras (Silver Car), eta David Ardions (Mitsubishi), 2012ko irabazlea.

**SARI BEREZIAK.** Udanako errepide bazterretara zaletuak erakartzeko asmoz, aurtun sarreraren prezioa merketu egin dute (8€ aurrez erosita) eta, gainera, zokketa batean (asteburuko hiru egonaldi Sindikako Bordetan, Zumeltzegi hotelean eta Arregi nekazal turismo etxean) sartuko dira. Bestalde, Udanako Igoerak eragiten dituen gastuei aurre egiten laguntzeko, aterkiak ere jarri dituzte salgai (20 €) antolatzaileek. Helmuga eta Oñati tabernetan, eta Madalena gasolindegian eskura daitezke sarrerak eta aterkiak.

**ORDUTEGIA.** Goizeko 9etan hasiko dira autoen egiaztapen administratibo eta teknikoak Foruen plazan. Eguerdiko 12:30etan autoak karabanan abiatuko dira Udanarantz, eta 14:00etan hasiko da lasterketa. Lau igoera egingo dituzte, entrenamenduko bi eta bi ofizial. Debekatuta egongo da bide bazterrean aparkatzea

# KANTOIKRIT

## Pinoi finkodun kriteriuma uztailaren 13an

Uztailaren 13an (22:00) jokatu da udaldiko egutegian klasiko bilakatu den pinoi finkodun kriterium ikusgarria. Lehiakideek 27 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute, 15 bira emanez %100 urbanoa den zirkuitoari, erdiguneko kaleetan.

Freno manualik gabeko pinoi finkodun bizikletek bakarrik parte hartu ahal izango dute. Izen-ematea (25€) [www.saillkapenak.com](http://www.saillkapenak.com) atarian egin behar dira. Azken hiru urteetan asturiarrak izan dira nagusi, eta lehen oñatiarra Iñigo Mugarza azken bi urteetan. Ea aurten norbait gai den aurre egiteko.



Txirindulariak galtzadarri gunetik irteten. (Asier Egaña)



## Bi garaipen Debarroko txapelketan

**PILOTA.** Aloña Mendiko pilotariak Kadete eta Gazte mailako txapelak irabazi dituzte Debarroko txapelketan. Kadete mailan Garitano-Galdos nagusi 22-13 Ugarte-Loiti oñatiarren aurka. Gazte mailan Erle-Perez garaile 22-9 Etkezarreta-Marquez bergarrarren aurka. Senior mailan Soralezuko Antxotegi eta Irureta irabazle 22-18 Etxaniz-Gartziaren aurka.

### ETXEGARAI-OSSES ERRIOXAN.

Maddalen Etxegarai eta Uxue Osas gazteek Santo Domingo de la Calzadako txapelketa irabazi dute bigarren goz jarraian. Eta Uxue bere aldetik Uhartekoan (Nafarroa) nagusitu da bigarren goz jarraian.



## Erostarbe Gipuzkoako txapelduna

**TXIRRINDULARITZA.** Aimar Erostarbe Aloña Mendi-Ulma taldeko txirindulariak kadete mailako Gipuzkoako erlojupeko txapelketa irabazi zuen ekainaren 15ean Bergaran. Beñat Carbayadak eta Kimetz Etxabek osatu zuten podiuma.

Hurrengo egunean, Olakuan, errepideko txapelketa jokatu zen eta honako honetan bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen Erostarbek. Tropelari aurrea hartutako zazpi txirindulariren arteko esprintean erabaki zen txapelketa, eta Haritz Sein izan zen azkarrena. Beñat Carbayadak osatu zuen podiuma.

## Emaitza bikainak mendi lasterketetan

**MENDI LASTERKETAK.** Mendi korrikalari oñatiarrak sasoi bikainean daudela erakutsi dute beste behin. Hala, ekainaren 16an jokatu zen T3T (Tolosako 3 Tontorrak) proban, Euskal Herriko txapela jokoan zegoen eta Xabi Lete 3. sailkatu zen (04:24:05) 43,5 km. eta +2.800m.ko lasterketan. Gazte mailako lasterketan (13km / 920m+), Nagore Uribarrik (1:29:05) garaipena lortu zuen senior mailan, Igor Mugarza (1:06:54) azkarrena izan zen Kadete mailan eta Eider Irizarrek (1:30:23) ere garaipena lortu zuen Kadete mailan.

**AINARA URIBARRI ESPAINIAKO KOPAN GARAILE.** Ekainaren 23an jokatu zen Zumaiaiko Flysh lasterketan lortutako garaipenarekin Espainiako Kopa irabazi du Ainara Uribarrik promesa mailan. Abuztuan Europako txapelketan izango da Italian.





# Antzerki laborategia Oñatin

**Residui Teatro** konpainia madrildarrak hamar eguneko egonaldi artistikoa egingo du Oñatin, **uztailaren 18tik 29ra**. Nazioarteko 20 aktorek parte hartuko dute. Formazioa eta sormena lantzeaz gain, **herritarrekiko zubigintza** lana egitea da helburua.

Antzerki komunitarioaren ideia praktikara eramanez, *Residui Teatro* antzerki taldeak hamar eguneko egonaldi artistikoa ('Bridges') egingo du Oñatin uztailearen 18tik 29ra. Bi ardatz edo helburu izango ditu egonaldiak: batetik, aktore profesionalen formaziorako eta sormenerako gune bat eskaintzea; eta, bestetik, zubigintza lana egitea antzerkiaren eta komunitatearen artean, herritarrekiko interakzioa eta elkarlana sustatuz. Hortik *Bridges* (zubiak) izena.

Nazioarteko 20 bat artistak parte hartuko dute egonaldian, Gregorio Amicuzi eta Viviana Bovino, *Residui* taldeko zuzendarien aginduetara, eta Eltzia izango dute lanerako eta lotarako leku, antzerki laborategiak iraungo duen hamar egunetan.

Goizetan, formazio saioak jasoko dituzte, Europako eta ekialdeko antzerki tradizio ezberdinetako teknikan sakonduz, eta arratsaldeetan sormena landuko dute; inprobisazioa, talde dramaturgia, koreografiaren konposizioa eta kantua uztartuz, ikuskizun



bat prestatuko dute egonaldiaren amaieran Oñatiko kaleetan aurkezteko.

## **BAUL KANTARIA**

Irakasleen artean *Parvathy Baul* artista indiarren presentzia azpimarratu behar da. India mendebaldean tradizio handia duen *Baul* musikako artista eta



**Parvathy Baul** artista indiarra izango da gonbidatu berezia Oñatiko egonaldian. Kontzertu bat ere eskainiko du 'KALEAN' egitarauaren baitan.

narratzaile ezagunenetakoa da *Parvathy*, eta gorputz osoaren dantza eta mugimenduan oinarritzen den kantaera honen teknikak azalduko ditu. Irakasle lanak egiteaz gain, kontzertu bat ere eskainiko du uztailearen 24an, Lazarraga lorategian (19:00), Klean egitarauaren baitan.

## HERRITARREKIN LANEAN

Aktore profesionalei zuzendutako formazioaz gain, tokian tokiko komunitatearekiko zubigintza egitea da *Residui Teatro*-k antolatzen dituen egonaldi hauen helburuetako bat, eta Oñatin ere ahalegin berezia etgin nahi dute herritarrekiko interakzioa eta elkarlana sustatzeko.

Ildo horretan, topaketak egingo dituzte herriko talde eta elkarte ezberdinekin (Irazan, Algaraz...) eta, gainera, zenbait egunetan formatu txikiko emanaldiak egingo dituzte herriko txoko ezberdinetan (tabernak, elkarteak, Gaztelekua, Gaztetxea...) nazioarteko aktoreen presentzia bistaratzeko eta herritarrekiko hartu-emana bultzatzeko.

Gainera, egonaldiaren amaieran herrian ikuskizun bat aurkeztuko dute Oñatiko kaleetan eta bertan parte hartzera animatuko dituzte herritarrak, antzerki laborategian parte hartuko duten aktoreekin batera.

Horrez gain, *Residui Teatro* taldeak bere errepertorioko 'Apuntes sobre la felicidad' antzezlanaren taularatuko du Santa Anan (uztailak 26 / 20:00).

*Residui Teatro* Erroman sortutako konpainia da, baina 2007az geroztik Madril du egoitza, eta 2009an *Centro de Artesanía de las Artes Escénicas* gunea sortu zuen formazio artistikoa eta pentsamendu kritikoa sustatzeko. Gizartearen eraldatzea helburu duen antzerkia egiten du, pertsonen arteko topaketa eta komunitatearen garapena sustatuz.

## ILARGI ZABALETA BERGARA / aktorea

# "Oso berezia izango da niretzat egonaldi artistiko hau Oñatin egitea"

Ilargi Zabaleta aktorea da *Residui Teatro*-k bere egonaldia Oñatin egitearen "erruduna". Oñatin sortua (umea zela Gasteizera joan zen bizitzera), Madril bizi da egun, arte eszenikoetako ikasketak egiten. Iaz *Residui* taldeak Italian antolatu zuen antzerki laborategian parte hartu zuen, eta aurtengoa Euskal Herrian egin nahi zutenekin, sorterrira ekartzea proposatu zien Ilargi. "Azken lau urteotan Madril bizi naiz, baina tarteka joaten naiz Oñatira, familiakoak bisitatzera, eta ilusio berezia egiten dit uztailean bertara joatea antzerkia egitera eta, artea tarteko, jendearekin egotera, horixe baita gehien gustatzen zaidana. Niretzat opari bat da".

22 urte ditu Ilargi eta hil honetan bertan amaituko ditu ikasketak. "Aktore formazioa ez da sekula amaitzen, baina hemendik aurrera lana eginez jarraitu nahi dut hazten artista gisa". Ipurtarina dela aitortzen du eta, dagoeneko, hainbat lan egin ditu: antzezlanak, laburmetraiak, publizitatea, modelo gisa...

Interpretatzea ez ezik, sortzea ere oso gustuko du. "Niretzat oso lotuta daude biak. Antzerkia helburu batekin egitea gustatzen zait, ez interpretatze hutsagatik. Sortze prozesua eta jendearekiko harremana ditut gustuko; antzerkiaren bidez bizitza ikustea eta, batez ere, ikastea, gauzez konturatzea, sakontzea eta gauza berriak probatzea, arriskatzea". ■



Oñatiarra sortzez, Madril bizi da egun Ilargi, arte eszenikoetako ikasketak egiten

**ARRIZABALAGA**  
Aroztegia

**PAKITA**  
Altzariak

Berezao Ind. 10  
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

**IRAZOLA**  
Okindegia

Ostiral, asteburu  
eta jai egunetan  
baserrniko agia,  
egurrezko labea egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

UDAKO KULTUR EGITARAUUA 2019

# KALEAN

**EKAINA**

28 | OSTIRALA | 22:00  
Arantzazuko Santutegiaren kanpoaldean

**GANBARA FAKTORIA**  
Antzinako Sekretuak

**UZTAILA**

4 | OSTEGUNA | 19:00  
Erdinguneko kaleetan

**BROKEN BROTHERS  
BRASS BAND**  
talde ibiltaria

10 | ASTEAZKENA | 19:00  
Lazarragako lorategia

**ARAN SAIZ TRIO HIRUKOTEA**  
jazz eta pop estiloko abestiak

17 | ASTEAZKENA | 19:00  
San Lorentzoko ermitaren aurrealdea

**HAVANA 537**  
folk kubatarra

24 | ASTEAZKENA | 19:00  
Lazarragako lorategia

**PARVATHY BAÚL ARTISTA**  
(Kerala-India), kontzertu-ikuskizuna

**IRAILA**

1 | IGANDEA | 19:00  
Erremerteri plaza

**HORTZMUGA  
TEATROA, "JULE"**  
familientzako ikuskizuna



**OÑATI**  
dabilen herria



BROKEN BROTHERS BRASS BAND

ARAN SAIZ  
TRIO

HAVANA 537

PARVATHY  
BAUL

## Askotariko musikak udaldia girotzeko

**Ganbara** eta **Hots** abesbatzek Arantzazun eskaini zuten kontzertu bereziaren ostean, uztilaren 4an izango da KALEAN egitarauko bigarren emanaldia. Iruñeako **Broken Brothers Brass Band** taldea ibiliko da erdinguneko kaleetan barrena pintxo-poteoa girotzen, blues, gospel eta jazz dionuekin.

Uztailaren 10ean **Arantzazu Saiz** pianujole oñatiarrak, **Joseba Loinaz** (baxua) eta **Hasier Oleaga**rekin (bateria) grabatu duen **Bidean** diskoa aurkeztuko du, doinu klasikoak, jazz eta popa uztartuz. Hilaren 17an kubatar dionuak (salsa, bachata...) nagusituko dira, Bilboko **Havana 537** taldearen eskutik, eta 24an **Parvathy** indiarrek Kerala estatuan tradizio handikoa den **Baul** musikan oinarritutako kontzertu-ikuskizuna eskainiko du. Egitaraua borobilduz **Hortzmuga** taldeak familiei zuzendutako **Jule** kale-ikuskizuna eskainiko du irailaren leian.

## CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es



## MODA BEREZIA

Kale Barria, 12  
Tel. Faxes: 943 71 62 40

**ZINEA**

Uztaileko asteartetan zine emanaldiak egongo dira Gaztetxean.

**UZTAILAK 9 / 22:00**  
**'NAPARDEATH (Ataun Of The Dead III)'**

Katihotsak taldearen trilogiaren hirugarren atala.

**UZTAILAK 16 / 22:00**  
**'LIFE OF BRIAN'**

Aurten 40 urte betetzen dituen pelikula jatorrizko hizkuntzan eta euskarazko azpitoluuekin.

**UZTAILAK 23 / 22:00**  
**'ALBANIAREN KONKISTA'**

Beaumonteko Luis jaunaren abentura Mediterraneoan

**UZTAILAK 30 / 22:00**  
**'PRIDE'**

LGTB mugimenduko Mar Ashtonen bizitzan oinarritua

**MENDI IRTEERA**

**UZTAILAK 10 / 15:00**  
**'TXONDORGILEAK'**

Txondorgileen txabolen az-tarnak ikusteko ibilaldia. [Antixena gaztetxean.](#)

**HIZKETALDIA**

**UZTAILAK 15 / 18:30**  
**'KONTRAKO EZTARRITIK'**


Emakumezkoek bertsolaritza duten rolari buruzko hizketaldia, Mainer Arregiren eskutik. [Gzdetxean.](#)

**ARTE JARDUNALDIAK**

**UZTAILAK 16-17 / SEILUGINTZA ETA ESTANPAZIO TAILERRAK**

Pankarta tailerra ere egingo da. [Antixena gaztetxean.](#)

**LIBURUTEGIA**



**Hileko gomendioak**



**Biblioporrak gidak 25 urte bete ditu**

Oñatiko Udal liburutegiak, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Legazpikoekin batera, **Biblioporrak** gida kaleratu du, urtero bezala, adinka sailkatutako hainbat liburu CD eta DVD zerrenda luzearekin. Aurtengoa, baina, gida berezia da, **Biblioporrak** gidak 25 urte betetzen baititu. Hala aurtengo gidak ehundik gora proposamen jasotzen ditu; gehienak berriak, baina baita gaurkotasuna mantendu duten 'irakurgai ahaztezinak' ere. Udal liburutegian eta udalaren webgunean eskura daiteke gida. Bideo bat ere sareratu dute: [www.youtube.com/Biblioporrak 25 urte](http://www.youtube.com/Biblioporrak25urte).



**FARMAZIA**

**ANDUAGA**

**San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16**  
Uztailak 5, 6 eta 7. Abuztuak 16, 17, 18, 20, 22, 26, 28, 30 eta 31.

**IGARTUA**

**Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22**  
Uztailak 8, 9, 16, 18, 22, 24, 25, 26, 27, 28 eta 30. Abuztuak 1, 5, 7, 9, 10, 11, 13 eta 15.

**GARATE**

**Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58**  
Uztailak 10, 11, 15, 17, 19, 20, 21, 23, 29 eta 31. Abuztuak 2, 3, 4, 6, 8, 12 eta 14.

**ULDAIN**

**Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28**  
Uztailak 12, 13 eta 14. Abuztuak 19, 21, 23, 24, 25, 27 eta 29.



**MERKATU TXIKIA**

**KLASE PARTKULARRAK** Uztaileko goizetan klase partikularrak emango nituzke. Psikologiako lehen maila gainditu dut eta ingelesean *Advance* maila jaso dut. Deitu: 688602694

**GARAJEA SALGAI / ALOKAGAI**

Olakua auzoko 7an. Interesatuak deitu: 695 783 080 / 943716038.

**ETXEBIZITZA BILA** Neska oñatiarra eta arduratsua naiz. Etxebizitza txiki bat behar dut alokatzeko. 692264324.

**ODOL ATERALDIA**

**UZTAILAK 19 / 17:00-19:00**  
Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta, kalea 18), 17:00-19:00.



• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**  
Otdai zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

[www.caravanasonate.com](http://www.caravanasonate.com)

• **BIZIKLETAK**  
• **ERREMOLKEAK**  
• **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**  
Otdai zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 78 05 65  
Atzeko kale, 32 (erakusketa)



(\*) Itten: arrastua, pistia

# Itten bat

&gt;&gt; Jakingarrixa

## Baserri izenak (3)

Herrixan badittugu beste baserri batzuk pertsona-izenetik datozenak zeïñen edo noren kasuan deklinatuta. Sail hau izango da ugarixenetakua, ugarixena ezpada. Danak aittaketia eziñezkua danez, hona hemen zirrindaratxo bat horren erakusgarri: *Antonena, Antuena, Asentzionena, Benturena, Bernalena, Fernanduen, Gasparrena, Gontzaluen txikiña, Isabelena, Joxiuen, Jurgiña, Juanpuena, Lopena, Meltxorrena (Olajaungoa), Migelen haundixa eta txikiña, Milianena, Popelabena, Simonena, Tomasena, ...* Eta sail honetako beste batzuk, berriz, izen hipokoristikuak dira (modu kariñosuan etxeak edo lagunak izentaitteko ebaltzen diranak): *Txantonena, Txomena, Txopena, Txurdiñena ...*

*Benturena* (Garagaltza)*Joxiuen* (Larraña)*Simonena* (Olabarrieta)*Tomasena* (Zañartu)*Txomena* (Araotz-Uriarte)*Txurdiñena* (Araotz-Jausoro)

&gt;&gt; Euskeraz egogi

Kontuz erderaz hain ugarixa dan **-ada** akaberiarekin, sarrittan euskeraz zela itzuli eztozu-eta jakitten. Adibidietan fijau ezkeru, berba adiña modu dagozela konturatuko zara.

<i>Primada</i>	<i>Prima-primuen bazkarixa Iñuzentekerixia</i>
<i>Quintada</i>	<i>Kintto-bazkarixa edo kintto-afarixa / Kintto- eguna</i>
<i>Alubiada, castañada, sardinada, chocolatada Piperrada</i>	<i>Baba-jana, gaztaiña-jana, sardiña-jana, txokolate-jana Piperradia: arrautzak tomate, piper eta pipermiñakin nahastuta</i>
<i>Salvajada, burrada, gamberrada Judiada, putada Chorrada</i>	<i>Astakerixia, kirtenkerixia, ganberrokerixia Gaiztakerixia, putakerixia Lelokerixia, huskerixia, tontakerixia, alukerixia</i>
<i>Cacerolada</i>	<i>Lapiko-jotia / kazuela-jotia / eltze-jotia</i>
<i>Sentada</i>	<i>Jarrialdixa, jasarrialdixa, egonaldixa; Jarrialdixa (protestakua danian)</i>
<i>Pintada</i>	<i>Pintadia</i>
<i>Manada Bandada</i>	<i>Lapur-bandia, gaizkille-bandia; majadero-kuadrillia (Eskallu)-bandadia, (txori)-saldua, (gazte)-aldria, (neska-mutiko)-kuadrillia</i>
<i>Escapada</i>	<i>Fan-etorri bat; urteeratxua Txiripia</i>
<i>Machada</i>	<i>Balentria, egitaundixa, azaña</i>

## ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



### Neska oñatiarrak Urbixa aldian

**U**rbixara fateko ohitturia aspalditik dakogu zuztarta txantxiuarrok. Eta ez mendizalien artian bakarrik. **Era askotako herritarrak** igoten euen eta daue urtian zihar Aizkorripeko zelai eder eta nasai hareittara: eskoletako umiak maixu-mais-trekin, gazte-kuadrillak, familixa osuak, edade eta taixo desbardiñetako pertsonak. **Sasue batian udabarritik udazkenera** bittarteko hillabetietan ibiltten zan jenterik gehixena; negu partian ixa iñobez, artzaiñak euren artaldiakin beheko larratara jaisten ziralako. **Orain**, ostera, **neguan be makiñatxo bat** inguraketan da goialde hareittara, **edurra egitten dauenian bereziki**. Fondia bera be ixa urte osuan egoten da zabalik.

Gaurko honetan **neska gazte talde** baten argazkixa dakartzuegu. Samur igarten da non atarata daguen, atzian **Urbixako fondia** ikusten dalako eta urrintxuago **ermittia**. Neskok aldian doian soiñeko eta kapelairi erreparau ezkerro, somauko dozue noizkua dan, ezta? Gerra osteko **1940 hamarkadako erdi ingurukua** esango neuke nik. **Protagonistak oñatiarrak** zirala jarri dogu izenburuan; egixa esateko, **batzuek hemendik kanpora** eukain euren **jatorrixa, baiña** garai haretan **gure herrixan bizi ziran**.

Goittik behera eta ezkerretik eskumara horra gaztione **izen-abizenak**:

**Goixeneko illaran**: **Pilar Altuna**, Kale Barriko estankokua; **Kontxi Rodriguez**, inprentakua; eta **Ines Maiztegi**, Natalio-neko txokolaterixakua.

**Bigarren illaran**: **Mari Karmen Lizaur**, Kale Zaharreko arkitektuenekua; **Karmen Gereta**, Kale Barriko bodegakua; **Nieves Madina**, Atzeko kaleko sesterixakua; eta ezkiñan zutik **Ines Urkiaga Luzar**, Kale Zaharreko Luzarrenekua.

**Hirugarren illaran**: **Mari Tere Arregi**, Kale Zaharreko Onena txokolaterixakua; **Mertxe Urteaga** beasaindarra, benedikti-netan bizi zana; **Loli [?]** **Urkiaga Luzar**, Inesen ahizpia; eta **Agustina Tina Ezenarro**, Kale Zaharrekoa, Ino Ezenaroren illobia.

**Beheko illaran**: **Mari Rodriguez**, inprentakua, Kontxiren ahizpia; **Milagros Madinazkoitia**, Kale Zaharrekoa; **Maritxu Zelaia [?]**, Zañartuko Upaingua; **Mari Sol Gereka**, Kale Zaharreko txokolaterixakua; eta pittin bat aurrerago **Maria Angeles Goñi**, Kale Barriko denda-tabernakua.

Fotografixia Tere Arregiren bidez eskuratu dogu; Tereri, berriz, Tina Ezenarrok bialdu otsala emuten dau. Argibidetarako Milagros Madinazkoitia eta Asun Arzuagak lagundu doskue, batez be; bittartekari-lanetan Txaro Anduaga, Iñigo Arregi, Iñazio Arregi eta Myrian Etxegoienek. Milla esker danoiri!



Sustraien mugetatik  
haratago



[www.lana.eu](http://www.lana.eu)

